

Herrialde txostena: Mexiko

basque
trade &
investment

2020ko iraila

+ Eusko Jaurlaritzaren Mexikoko Ordezkaritza

+ Adimen Lehiakorreko Unitatea



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT



EDUKIEN AURKIBIDEA

0. LABURDURAK ETA KONTZEPTUAK	4
1. DATU OROKORRAK	5
2. BEGIRADA	6
3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA	8
4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA	10
4.1. Abagune ekonomikoa	10
4.1.1. Mexikoko Testuinguru Ekonomikoa	10
4.2. Balantza komertziala	12
4.3. Atzerriko inbertsioa.....	15
4.3.1. Testuinguru orokorra	15
4.4. Enplegua	16
4.5. Perspektiba ekonomikoak	19
5. KANPO-MERKATARITZA	20
6. ALDEBIKO HARREMANAK	23
6.1. Euskadiren eta Mexikoren arteko merkataritza	23
6.2. Euskadiren posizionamendua.....	26
6.3. Aldebiko inbertsioak	32
7. SEKTORE NAGUSIAK	33
7.1. Ekarpena BPGari.....	33
7.2. Negozio-aukerak	33
8. NAZIOARTEKO HARREMANAK	35
8.1. Nazioarteko kidetasunak	35
8.2. Merkataritza-akordioak	35
9. ASKOTARIKO ARRISKUAK	37
10. ONDORIOAK	38
11. ERREFERENTZIAK	41



TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Hazkunde adierazleak	10
2. taula: Adierazle makroekonomikoak II	11
3. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak (2014-2018)	12
4. taula: Balantza komertzialaren emaitzak (2015-2019)	12
5. taula: Bazkide komertzial garrantzitsuenak (2019) (esportazioen %)	13
6. taula: Hornitzaile garrantzitsuenak (2019) (<i>inportazioen %</i>)	13
7. taula: Esportatutako produktu garrantzitsuenen zerrenda (2019) (balio erlatiboetan)	14
8. taula: Inportatutako produktu garrantzitsuenen zerrenda (2019) (balio erlatiboetan)	14
9. taula: Atzerriko Inbertsio Zuzena (2016-2018) (milioi USD)	15
10. taula: Herrialde inbertitzaileak eta sektoreak (2018-2019) (balio erlatiboak)	15
11. taula: Enplegu adierazleak (2019) (balio absolutu eta erlatiboak)	17
12. taula: Esportatutako produktuen zerrenda lehentasun ordenaren arabera (2017-2019) (<i>mila dolar amerikar - USD</i>)	21
13. taula: Inportatutako produktuen zerrenda lehentasun ordenaren arabera (2017-2019) (<i>mila dolar amerikar - USD</i>)	21
14. taula: Euskadiren eta Mexikoren arteko inportazioak eta esportazioak (2016-2020) (<i>milaka eurotan</i>)	23
15. taula: Euskadik Mexikora esportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)	23
16. taula: Euskadik Mexikotik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)	24
17. taula: Euskaditik eta Espainiatik Mexikora egiten diren esportazioen arteko alderaketa	25
18. taula: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaera hazkundearen arabera (2012-2017)	27
19. taula: Espainiatik Mexikora esportatutako makina eta gailu mekanikoak (84) (2018-19). Banakapena autonomi erkidegoka balore absolututan	29
20. taula: Espainiatik Mexikora esportatutako makina eta gailu mekanikoak (87) (2018-19). Banakapena autonomi erkidegoka balore absolututan	30
21. taula: Espainiatik Mexikora esportatutako makina eta gailu mekanikoak (85) (2018-19). Banakapena autonomi erkidegoka balore absolututan	31
22. taula: Mexikoko BPGa sektore ekonomikoka banakatuta	33
23. taula: Mexikoren Akordio Komertzial garrantzitsuenak	35
24. taula: Sinatuta baina oraindik indarrean ez dauden merkataritza-akordioak	36
25. taula: Mexikoko arrisku eta aukeren analisia	37

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Mexikoko AIZ jatorriko herrialdearen, inbertsio motaren eta sektorearen arabera	16
2. grafikoa: Okupazioa sektoreka (datu erlatiboak)	18
3. grafikoa: Hileroko batez besteko diru-sarrerak (USD)	18
4. grafikoa: 2020ko BPGaren AURREIKUSPENAK (portzentajezko hazkunde-tasak) Data: 2020ko lehen hiruhilekoaren amaieran	19
5. grafikoa: Mexikoko kanpo-merkataritzaren adierazleak (2014-2018)	20
6. grafikoa: Esportazioen portzentajea (2018) (<i>bezero nagusiak</i>)	20
7. grafikoa: Euskadiren eta Mexikoren arteko esportazio/inportazioen historikoa (milaka eurotan)	23
8. grafikoa: Espainiaren eta Mexikoren arteko esportazioen historikoa (2016-2019) (autonomi erkidegoka banakatuta milaka eurotan)	25
9. grafikoa: Euskaditik Mexikora esportatzen duten enpresen banakapena probintziaka	26
10. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiatik Mexikorako guztizko esportazioetan (2019)	26
11. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiako guztizko esportazioetan (2019)	26
12. grafikoa: Espainiaren eta Mexikoren arteko Taric 84 esportazioak guztira (2019)	29
13. grafikoa: Espainiaren eta Mexikoren arteko Taric 87 esportazioak guztira (2019)	30
14. grafikoa: Espainiaren eta Mexikoren arteko Taric 85 esportazioak guztira (2019)	31
15. grafikoa: Euskadiren eta Mexikoren arteko aldebiko inbertsioak	32



0. LABURDURAK ETA KONTZEPTUAK

- **ALADI:** Latinoamerikako Integrazio Elkartea
- **AMLO:** Andrés Manuel López Obrador
- **APEC:** Asia-Pazifiko arteko Lankidetzaren Ekonomikoko Mekanismoa
- **APRI:** Inbertsioen Elkarrekiko Sustapen eta Babeserako Akordioak
- **BBDD:** Datu-baseak
- **BBVA:** Bilbao Vizcaya Argentaria Bankua
- **BRICS:** Horrela deitzen zaio Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrikak osatzen duten herrialde multzoari.
- **EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa
- **EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa
- **AAEE:** Autonomi Erkidegoak
- **CIVEX:** Euskadiko Industriaren eta Enpresa Esportatzaileen Katalogoa
- **CONEVAL:** Garapen Sozialeko Politikaren Ebaluaziorako Kontseilu Nazionala
- **GATT:** Muga-zergei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra. Estatu kideen aldi behingo bilerak dira, zeintzuetan muga-zergen murrizketa negoziatzen baita, elkarrekikotasun printzipioa oinarritzat hartuta.
- **INDEX:** Esportazioko Industria Makilatzaileen eta Manufaktura Industriaren Kontseilu Nazionala
- **AEBak:** Estatu Batuak
- **GGI:** Giza Garapenaren Indizea
- **AIZ:** Atzerriko Inbertsio Zuzena
- **INEGI:** Estatistika eta Geografiako Institutu Nazionala
- **MD:** Milioi dolar
- **ELGA:** Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea
- **MME:** Merkataritzaren Munduko Erakundea
- **LPEE:** Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea
- **BEA:** Biztanleria Ekonomikoki Aktiboa
- **PEMEX:** Petróleos Mexicanos Mexikoko estatu-enpresa bat da, petrolio eta gas naturala ekoitzi, garraiatu, birfindu eta merkaturatzen duena
- **BPGa:** Barne Produktu Gordina
- **ETEak:** Enpresa txiki eta ertainak
- **SHCP:** Ogasun eta Kreditu Publikoko Idazkaritza
- **SICE:** Kanpo-merkataritzari buruzko Informazio Sistema
- **LGS:** Lanbide arteko Gutxieneko Soldata
- **MLI:** Merkataritza Libreko Itunak
- **T-MEC:** Mexiko, Estatu Batuak eta Kanadaren arteko Itun Komertziala (T-CLAN berria)
- **EB:** Europar Batasuna
- **USD:** Dolar estatubatuarra
- **WEF:** World Economic Forum



1. DATU OROKORRAK¹



GOBERNUA

Estatu-burua: Andrés Manuel LOPEZ
 OBRADOR presidentea
Lehen ministroa: Andrés Manuel LOPEZ
 OBRADOR presidentea
Gobernu mota: errepublika
 ordezkatzaila, demokratiko, federal eta
 laikoa



BIZTANLERIA

Guztira: 125,929 milioi
Hazkunde naturala: % 1,09
Hirietako biztanleria: % 80,2
Hizkuntza ofiziala: espainiera
Negoioetarako hizkuntza: espainiera
Hiriburua: Mexiko Hiria (CDMX)
Hiri garrantzitsuenak (biztanleria): CDMX (9 mil.), Ecatepec (1,6 mil.), Tijuana (1,6 mil.), Puebla (1,5 mil.).



EKONOMIA

BPGa (2019, milioi euro): 1.035.842
Manufakturako BPGa (2017, milioi euro): (% +1,6)
Per capita BPGa (PPP, 2019, euro): 8.183
BPGaren hazkundera (2019): % -0,1
Urteko inflazioa (2019): 3,64
Enplegua: 57.625,521 milioi
Enplegu-tasa (2019): 55.683,450 (% 58,36)
Langabezia-tasa (2019): 1.942,071 (% 2,035)
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (2019, milioi euro): 472.272.870,507
 USD
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak (2019, milioi euro): 467.293.167,276
 USD
Kanpo-merkataritza (2018, BPGaren %): % 80,4
Kanbio-tasa (2019ko batez bestekoa): euro 1 = 21,175 peso mexikar
Oharra.- 2020ko lehen hiruhileko honetan, pesoa balioa galtzen ari da euroarekiko, ez bakarrik Covid-19agatik, baita ere petrolioaren prezioen borrokatik (kanbio-tasa 2010/03/27an: euro 1 = 25,95 peso).



BESTE BATZUK

GGI: 0767 (76/188); -
Internet erabiltzaileak: % 65,8
 (hirietan: % 73,1; landa eremuetan: % 40,6); I+G
 gastua BPGarekiko: % 0,6.

¹Atal honetako datuak iturri haueetatik ateratakoak dira: Banco Santander: <https://santandertrade.com/>; World Trade Organisation (WTO): <https://www.wto.org/>; Estadística eta Geografiako Institutu Nazionala (INEGI): <https://www.inegi.org.mx/>; Central Intelligence Agency (CIA): <https://www.cia.gov/es>



2. BEGIRADA

Txosten honen helburua da **Mexikoko testuinguru sozioekonomikoa landu eta aztertzea**, eta baita ere zehaztea **zein den bere mundu mailako integrazio ekonomikoa**, horrela jakiteko **nolako potentziala eskaintzen dien inbertitzeko edo beren produktuak merkaturatzeko interesa izan lezaketen askotariko euskal enpresei**. Horretarako, aztergai hartu dira Mexikoko faktore makroekonomiko garrantzitsuenak, bai eta faktore horiek Euskadirentzat interesgarriak diren sektore garrantzitsuetan duten eragina, asmoa baita jakitea nola posizionatuta dagoen sektore horietan, eta zeintzuk diren beste eremu batzuetan egon litezkeen aukera eta mehatxuak.

Mexiko **46. postuan dago Munduko Foro Ekonomiko Globalaren Lehiakortasun Rankingean** (140 Herrialdeko zerrenda) eta **Latinoamerikako bigarrena da**, soilik Txileren atzetik eta Costa Rica nahiz Panamaren aurretik. Bestalde, BRIC blokearekin alderatuz, laugarren postutik hirugarrenera pasa da, **India eta Brasilen aurretik**. Hala, **munduko ekonomia handienetako bat da ekoizpenari, merkataritzari eta biztanleriari dagokionez**, eta gainera, **egonkortasun makroekonomiko handia du**, 2018an murriztu egin zelako BPGarekiko zor publikoa. Gainera, dinamismo handia du negozioetarako, araudi-marko apropos bati esker. Mexiko **hainbat Trade Block itunetako kide da**, hala nola, NAFTA, ELGA, G20 eta Pazifikoko Aliantzakoa, eta **posizionamendu geografiko guztiz estrategikoa du** kontinente barruan, bai Estatu Batuekiko merkataritzarako eskaintzen duen aukeragatik eta bai Latinoamerikarako sarbidea delako. Oraitzuko gobernu aldaketarekin **zerga-politika oso erakargarriak jarri dira martxan**, besteak beste, **BEZa eta IRS tasa korporatiboa murriztu dira Mexikoren muga inguruetan**, eta hori pizgarri handia da bertan inbertitzeko. Halere, gobernu aldaketak ziurgabetasun-giroa ere sortu du, eta hori areagotu egin da Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz.

Krisi horrek kolpe latza eman dio Mexikoko ekonomiari, **% 17,1eko beherakada historikoa jasan duelarik 2020ko bigarren hiruhilekoan** (apirila-ekaina), jarraikako hiruhilekoko bosgarren jaitsiera erregistratu delarik. Urteko zifrekin konparatuz, **Mexikoko BPGa % 18,7 murriztu zen bigarren hiruhilekoan**, INEGLren zifren arabera. Baina hirugarren eta laugarren hiruhilekoetarako aurreikuspenak nahiko positiboak dira, eta zifrak negatiboak badira ere (% -10 eta % -6 hurrenez hurren), antzematen dira suspertze-zantzuak. Testuinguru horretan, badaude kontuan hartu beharreko hainbat efektu ekonomiko: **(i) disrupzio garrantzitsuak balio-katean (ii), arazoak ekoizpena eta enpresen itxierak orekatzeko (iii), zailtasunak kontsumo pribatua suspertzeko langabeziaren gorakadagatik (iv), tentsioak sistema finantzarioan (v), zor pribatu eta publiko handiagoa, neurri batean, Mexikoko pesoaren balio-galeragatik (vi), zailtasunak petrolioaren prezioa suspertzeko (vii), austeritate fiskaleko politikak eta (viii) inbertsioen eta gastu publikoaren murrizketa.**

Halere, gorago aipatu bezala, espero da urtearen hirugarren hiruhilekoan **ekonomia suspertzen hasiko dela, Mexikoko pesoa hobeto posizionatuko delako**, eta **T-MEC onartu berriari esker** Mexikoko enpresak baldintza optimoetan kokatuko direlako lehiazeko, batik bat oinarritzkoak diren sektoreetan (adibidez, automozioa edo sektore aeroespaziala).

Alderdi ekonomiko orokorreari erreparatuz, **kanpo-merkataritzak garrantzi handia hartu du** maila makroekonomikoan, **BPGaren % 80,4ra iristeraino 2018an**. Oro har, **balantza komertziala negatiboa izan da estrukturalki**, 2019an izan ezik, 5 mila milioi dolarreko saldo positiboa izan baitzuen urte horretan. Hala ere, **Euskadirekiko merkataritzari dagokionez, Mexikoko balantza positiboa da.**

Transakzio horietako produktu garrantzitsuenak dira ibilgailuak eta makina elektrikoak (bere modalitate desberdinetan), eta horien eratorriak. Euskadiri dagokionez, argi ikusten da **Euskaditik Mexikorako esportazioen % 57 baino gehiago automozio eta makina-erreminta sektoreetakoak direla**, eta horrek garrantzi handia dauka, kontuan hartzen bada automozio sektoreak pisu handia duela Mexikoko kanpo-merkataritzan eta BPGn. **Inportazioei erreparatuz gero, ikusten da % 95 erregaiak, olioak eta mineralak direla. Mexiko hamaikagarrena da Euskadiren esportazio hartzailen artean; inportazioei dagokienez, berriz, zazpigarren herrialdea da.**

Hala, euskal enpresek Mexikoko puntako sektoreekin duten lotura estuari esker, **Eusko Jaurlaritzak hainbat akordio hitzartu ditu Mexikoko erakunde publiko eta pribatuekin, lehendik dauden sinergiak indartu eta sustatzeko eta Mexikon sartzeko bide berriak sortzeko.**



Mexikon **150etik gora euskal ezarpen** daude, eta **350 enpresa inguruk parte hartzen dute bi herrialdeen arteko merkatu-fluxuetan**. Mexiko **potenzial handiko merkatua da** Euskadirentzat, eta gure enpresa askok esperientzia eta ibilbide handia dute han jadanik. Hala, paradigma, erronka eta aukera berriz betetako ingurune horretan, euskal industriak aurrera egin behar du digitalizazioan, automatizazioan eta zerbituzazioan –Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020 Industrializazio Plan Berriak helburutzat daukan 4.0 Industriaren kontzeptuaren aterkipean-, gero eta proiektu anbiziotsuagoei ekiteko, lehiakorrako izateko eta, horrela, sektore bakoitzeko konpainia liderren artean kokatzeko.

Zentzu horretan, euskal enpresen esternalizazio-maila hazkorra eta bezero, produktu eta merkatuen dibertsifikazioa **aukera paregabea dira 11.000 ETEentzat nazioartekotzearen aldeko apustua egiteko** Mexikon balio-kate osagarrietako hornitzaile gisa; are gehiago orain, T-MEC akordioa berretsi ostean, besteak beste, aldatu egin delako “produktuaren jatorria” irizpidea eta ekoizpen-portzentaje handiagoa eskatzen delako ituna sinatu duten hiru herrialdeetan. Hala, euskal enpresen **know-how**-a lagun duen produktu erabat mexikarra izatea elementu bereizgarria izango da, alegia, berme on bat posizionamendu hobea eta lehiakortasun handiagoa lortzeko.



3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Mexikoko testuinguru sozio-politikoaz aztertzeko, kontuan hartu da PESTEL izeneko tresna edo eskema, zeinari esker herrialdearen panoramika global bat eskuratu baitaiteke faktore garrantzitsuenetan sakonduz.

1.- Faktore politiko eta ekonomikoak: Mexiko –izen ofiziala: Mexikoko Estatu Batuak– errepublika ordezkatzailerik, demokratiko, federal eta laiko bat da, eta bere osagaiak dira estatu libre eta subiranoak gehi euren udalerririk euren barne erregimenari dagokion guztian, eta Mexiko Hiria, herrialdeko hiriburua. Berriki egin diren hauteskunde ondoan, gehiengo absolutua duen gobernu berri bat osatu da joera “sozialista” duen Movimiento Regeneración Nacional alderdiko Andrés Manuel López Obradorren agintepean. Alderdi hori lehen aldiz iritsi da Mexikoko gobernura. Testuinguru politiko berri horretan, estatuak “B” mailako herrialde-arriskua du Coface-k² erabiltzen duen kalifikazioan, hau da, arrisku esanguratsua. Halere, negozioetarako giroan “A4” maila lortu du, esan nahi baita onargarria.

Eduki ekonomikoa atalez atal aztertuko da Testuinguru Makroekonomikoari buruzko hirugarren puntuan.

2.- Faktore sozialak: Giza Garapenaren Indizean (GGI) Mexikok 76 puntu ditu, eta 189. postuan dago mundu mailako rankingean. Halere, GINI indizean **desberdintasun-tasa handia** du (0,434), nahiz eta “erdi-mailako klasea” delakoak gero eta pisu handiagoa duen. Era berean, eskualde mailako garapenean desberdintasun handiak daude, areagotu egiten dutenak nolabait arestian esan den desberdintasunaren adierazlea. Hiriak gero eta handiagoak dira, eta neurri berean hazten ari da hirietako ekonomia ere. Bien bitartean, badaude nagusiki landa-eremuz osatutako estatu garatu gabeak, zeinetan gobernuak ez duen askorik inbertitu orain arte; estatu horien ezaugarri nagusiak izaten dira pobrezia indize altua (biztanleriaren % 15etik gora “muturreko pobrezian” bizi da), kriminalitate-tasa altua, eta oinarritzko zenbait zerbitzu (etxebizitza, osasun zerbitzuak eta gizarte segurantzak) eskuratu ezina. Azpimarratu behar da desberdintasun indizea handitzeak berekin ekarri duela bi postu atzera egitea Giza Garapenaren munduko rankingean. Halere, badira **politika zehatzak** garatu gabeko eskualde horietan inbertsioak sustatzeko, esaterako **Eremu Ekonomiko Bereziak** izendatzea.

Azkenik, Mexiko **atzeratuta dago hezkuntzaren atalean**, batez ere pentsatzen eta arrazoitzen irakasteko gaitasunari dagokionez.

3.- Faktore teknologikoak: Mexiko **teknologia zerbitzuen munduko hirugarren esportatzailea da**; halere, saltzen dituen produktuak beste herrialde batzuetako jendeak sortutako zehaztapenei jarraituz eginak dira. Hala, eten horretantxe aurkitzen da **ekintzailetza eta berrikuntza bultzatzeko espazioa**, hots, kudeaketa prozesu berrien garapenean eta herrialdean bertan eginko zehaztapenen gainean eraikitako software eta hardware garapenean.

4.- Faktore juridiko-legalak: Gobernu aldaketaren ostean, martxan jarri dira **atzerriko inbertsioarentzat abantailatsuak diren politikak** eta hainbat lege onartu dira. Enpresen zergak murriztuz eta pesoaren devaluazioarekin espero da herrialdearen lehiakortasuna hobetuko dela, baina horretarako ezinbestekoa izango da segurtasun juridiko handiagoa lortzea merkataritza eta finantza arloetan. Era berean, egungo gobernuak daukan gehiengo absolutua lagungarri izango da arlo horietako legeak onartzeko, eta pentsa liteke lege horiek onuragarriak izango direla atzerriko inbertsioarentzat. Halere, gobernu honekin ziurgabetasuna da nagusi suspertze ekonomikora daraman sektore pribatuko kohesioa lortzeko beharrezkoak diren politika publikoak ezartzeari dagokienez.

Halaber, badira hainbat ekimen legegile askatasun sindikalaren inguruan, eta badirudi horrek inpaktu handia izango duela Mexikoko lan arloan, lan baldintza hobek ezarriko dituelako eta langile nahiz enpresen lehiakortasuna sustatuko duelako. Oraingo gobernuak bere legegile motortzat hartu nahi ditu garapen soziala eta ekonomikoa.

5.- Ingurumen faktoreak: Mexikok eta nazioarteko komunitateak 2015eko irailean adostu zuten, Nazio Batuen baitan, konpromiso bat hartzea **garapen jasangarriantze aurreratzeko**, ongi definitutako helburu eta jomugak ezarri 2030. urterako. Hala, Andrés Manuel López Obrador presidentek onartutako erronken artean, agindu zuen produktu transgenikoen erabilera debekatuko zuela Mexikon, baina oraindik onartzeke dago agrotokoen erabilerari buruzko



araudia, eztabaidatzen ari dira Bioaniztasun Legea, eta uraren pribatizazioa saihesteko Lege hiritar bat lantzen ari dira. Era berean, fracking-a debekatzeko lege bat onartzea aurreikusten da. Halere, gai horiei buruz egungo gobernuak bere jarrera agertu baino ez du egin, eta gainerako arlo guztietan bezala ziurgabetasuna da nagusi, legealdi berri baten hasiera delako. Gainera, egungo gobernuak martxan jarri dituen **azken politikek** talka egiten dute nolabait lehenago hartutako konpromisoarekin, zeren energia jasagarriak garatuko zituela agindu arren, apustu sendoa egin baitu **Petróleos Mexicanos (PEMEX) petrolio-enpresa nazionalaren alde**.



4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

4.1. Abagune ekonomikoa

1. taula: Hazkunde adierazleak²³⁴

HAZKUNDE EKONOMIKOAREN ADIERAZLEAK	2017	2018	2019	2020 (e)		2021 (e)	
				COVID-19a baino lehen	COVID-19aren ondoren	COVID-19a baino lehen	COVID-19aren ondoren
BPGa (mila milioi USD)	1.158	1.221	1.258	n/a	n/a	n/a	n/a
BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea)	2,1	2,14	-0,1	1,00	-6,6	1,9	3,3
Per capita BPGa (USD)	9.278	9.673	9.863	9.601 (1T)	n/a	n/a	n/a
Inflazio-tasa (%)	6,04	4,89	3,63	3,5	3,5	2,8	3,53

Iturria: FMI, World Economic Outlook Database, 2020ko uztaila; CONEVAL, 2020ko uztaila.

4.1.1. Mexikoko Testuinguru Ekonomikoa

Mexiko **46. postuan** dago **Munduko Ekonomi Foroaren Lehiakortasun Rankinean**⁵ (140 Herrialdeko zerrenda) eta laugarren postutik **bigarrenera igo da Latinoamerikan**, soilik Txileren atzetik eta Costa Rica nahiz Panamaren aurretik. Era berean, BRIC multzoarekin alderatuz, laugarren postutik hirugarrenera pasatu da, **India eta Brasil aurreratuz**; oso kontuan izateko moduko datua da hori ikusirik bi herrialde horiek munduko ekonomian duten tamaina eta pisu handia.

World Economic Forum (WEF) erakundeak eginiko analisiaren arabera, Mexikoren indargune nagusia bere merkatuaren tamaina da: **munduko ekonomia handienetakoa da ekoizpenari, merkataritzari eta biztanleriari dagokionez**. Halaber, **egonkortasun makroekonomiko** handia du, BPGarekiko zor publikoa % 46,04tik (2017) % 45,53ra (2018) murriztu zelako. Gainera, negozioetarako dinamismo handia du, arauketa-marko egoki bati esker.

INEGik eta Munduko Bankuak berriki eginiko estimazioen arabera, Mexikoko ekonomiak **% 0,10eko urteko desazkundera izan zuen 2019an**, 2018ko % 2,14ko hazkundearen aldean. Hala ere, azterlan horiek berek aurreikusten zuten ekonomiak suspertze apal bat izango zuela 2020an, eta BPGa % 1,00 handituko zela; noski, aurreikuspen horiek Covid-19ak eragindako krisi sozial eta ekonomikoa iritsi aurretik egin ziren. Testuinguru berrian, eta oraindik goiz izan arren krisiaren ondorioak neurtu eta kuantifikatzeko, NDFk ekainean eginiko azken aurreikuspenek diote Mexikoko **BPGa % -6,6 murriztuko dela 2020an**, partikular eta enpresen diru-sarrerak murrizteak kontsumo pribatuaren beherakada ekarriko dutelako, eta ekoizpena eta enplegua ere murriztu egingo direlako.

Hona hemen, laburturik, sektore bakoitzak aurreko ekitaldian eginiko ekarpenaren eta BPGaren egoeraren atzean dauden arrazoiak:

- Lehen hiru hilabeteetan **finantza zerbitzuak hazi ziren gehien**, urte arteko % 6,83ko hazkundearekin, kreditu-oinarria zabaldu zelako eta zerbitzuek errendimendu ona izan zutelako.
- **Elikadura industriak goranzko joerari eutsi dio** (% 3,97), esportazioetan gero eta zati handiagoa hartuta.

²NDF (2019ko urria): World Economic Outlook Database. Global Manufacturing Downturn, Rising Trade Barriers. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2019/10/01/world-economic-outlook-october-2019>

³NDF (2020ko uztaila): World Economic Outlook Database. The Great Lockdown. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>

⁴ CONEVAL (2020ko apirila): https://www.coneval.org.mx/Medicion/Paginas/ITLP-IS_resultados_a_nivel_nacional.aspx



- **Kontsumo sektorean ezagun da beheranzko joera**, azken hilabeteotako prezioen gorakadak eraginda nagusiki, eta badirudi berdin jarraituko duela 2020 osoan.
- **Manufaktura sektorean** badirudi automozio industria suspertzen ari dela apur bat; aldiz, industriako **zenbait segmentutan beheranzko datuak** errepikatu dira (industria kimikoa, industria metalkimikoa, oihalgintza eta oinetakogintza).
- **Telekomunikazio sektoreari** dagokionez, **hazkundera murriztu** egin da, eta gobernuak etorkizunean onartuko dituen araudien zain dago, sektorearen joera definitu dezakete eta.
- **Eraikuntza sektoreak datu negatiboa izan zuen** (% 0,85), eta espero da berdin mantenduko dela ekonomia orokorraren dinamikagatik eta administrazio-aldaketaren ondoren azpiegiturarako gastu publikoa murriztu egingo delako: aldatu egin da gastu politiken norabidea, azpiegituratan nahiz ondasun erosketetan egiten den gastua gutxituz, eta horren ondorioz BPGa % -2,81 uzkurto da.
- **Energia sektoreari** dagokionez, murriztu egin da petrolioaren erazteko gaitasuna, aurreko atalean aipatutako prezio-borrokaren albo-kalteek areagotu egin dutelarik joera hori. Hala, **industria % 8,08 puntu jaitsi da**.

Nolanahi ere, bai aipatutako azterlanak eta bai INEGIK, Mexikoko Bankuak eta Deloitte aholkularitza pribatuak egindako azterlan batek aurrekusi dute **ekonomiak suspertzen jarraituko duela** urtearen **laugarren hiruhilekoan** eta **2021eko lehen hiruhilekoan**. Hauek dira fenomeno horren atzean dauden arrazoi nagusiak: (i) **Mexikok** posizionamendu ona lortu du T-MEC berretsi ondoren; (ii) baliteke **Txinako produkzio-kate batzuk Mexikora aldatzea** datozen urteetan; (iii) kontsumo pribatua suspertu egingo da; (iv) **atalakako diru-sarrerak handitu egingo dira** eta (v) **hirugarren sektoreko jarduerak apur bat haziko dira**.

2. taula: Adierazle makroekonomikoak II

Adierazle makroekonomikoa	Joera	Aurreikuspena
Inflazio orokorra	2019an beheranzko joera izan zuen aurreko bi ekitaldi ekonomikoen aldean: % 3,68 urte amaieran.	2020an % 3tik gorakoa izango da: kalkulatzeko da Covid-19aren osteko inflazio orokorra % 3,5ekoa izango dela
Kanbio-tasa	Etengabeko aldakortasuna, beheranzko joera nabarmenarekin. % 22,20ko bariazioa, eta 2020az geroztik etengabeko balio-galera euroarekiko eta dolarrekiko. Faktore nagusiak: Covid-19a, petrolioaren prezioen bat-bateko jaitsiera eta balio-merkatuetako burtsen gainbehera (New York, Londres, Tokyo, Paris eta Mexiko Hiria).	2020an, euro batek 21,33 peso balioko ditu gehienez, eta 27,35 peso gutxienez. Batez bestekoa: euro 1 = 25,42 peso
Interes-tasa	Nahiko altua izaten da pizgarri funtzioa bete dezan zorroko inbertsioentzat: % 7,5 inguruan kokatzen da.	Beharrezko joera moneta-politika hedakorren ondorioz: 2020ko 1. hiruhileko amaieran: % 6,25
Nazioarteko erreserbak	2019 amaiera: 180.877.000 dolarreko (md) saldoa, aurreko neurketan baino 6.085.000 dolar handiagoa.	Dolarren eskaera gutxiago, eta, ondorioz, atzerriko ustekabeetarako blindajea handiagoa izango da.
Herrialde-arriskua (J.P. Morgan-en EMBI+ indizea)⁵	2019: positiboa. Faktoreak: kanbio-tasaren igoera, inflazioa kontrolatzera bideratutako moneta politika, eta diziplina fiskala.	N/a

⁵ J.P. Morgan aholkularitzaren EMBI+ adierazleak erakusten du zenbateko gaitasuna duen herrialde batek bere zor subiranoaren ordainteki aurre egiteko. Hori kalkulatzeko kontuan hartzen da herrialde gorakorrek jaulkitako bonoek -alegia dolarretan izendatutakoek- eta Estatu Batuetako Altxorren bonuek ordaintzen duten interes-tasaren diferentzia. Diferentzia hori oinarritzko puntutan (op) adierazten da; hau da, 100 op da Estatu Batuetako bonuen errendimendua baino portzentajezko puntu bat (% 1) handiagoa. Logikoki, bono arriskutsuenek interes handiagoak dituzte, ordaintetak ez betetzeko arrisku handiagoa dutelako.



4.2. Balantza komertziala

3. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak (2014-2018)

Kanpo-merkataritzaren adierazleak	2014	2015	2016	2017	2018
Ondasunen inportazioa (milioi USD)	411.581	405.280	397.516	432.179	476.546
Ondasunen esportazioa (milioi USD)	397.129	380.772	373.930	409.433	450.685
Zerbitzuen inportazioa (milioi USD)	30.341	29.495	31.926	36.775	37.049
Zerbitzuen esportazioa (milioi USD)	21.086	22.609	24.097	27.012	28.381
Kanpo-merkataritza (BPGaren %)	65,0	71,2	76,1	77,2	80,4
Balantza komertziala (milioi USD)	-2.795	-14.599	-13.070	-10.984	-13.796
Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD)	-16.087	-24.375	-22.036	-20.852	-22.719
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (urteko hazkundera %-tan)	5,9	5,9	2,8	6,4	5,9
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (urteko hazkundera %-tan)	7,0	8,4	3,6	4,2	5,9
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (BPGaren %)	33,1	36,6	39,0	39,5	41,2
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (BPGaren %)	31,9	34,6	37,1	37,7	39,3

Iturria: Merkataritzaren Munduko Erakundera eta Munduko Bankua, 2020ko martxoa

Mexikok **menpekotasun handia du kanpo merkataritzarekiko**, sektore hori **BPGaren % 80a** delako. Eskuarki **Mexikoren balantza komertziala negatiboa izaten da**, 2019ko ekitaldi ekonomikoan izan ezik; halere, kopuruak ez dira bereziki esanguratsuak inportazio eta esportazioekiko balore erlatiboetan; normalean nahiko apalak izaten dira. Hala, taula honetan (1. taula) ikus daitezke azken 5 urteetako kanpo-merkataritzaren datuak mila milioi dolarretan:

4. taula: Balantza komertzialaren emaitzak (2015-2019)

Period	Trade Flow	Reporter	Partner	Commodity Code	Trade Value (US\$)
2015	Import	Mexiko	World	GUZTIRA	\$395,234,172,903
2015	Export	Mexiko	World	GUZTIRA	\$380,550,238,738
2016	Import	Mexiko	World	GUZTIRA	\$387,070,333,024
2016	Export	Mexiko	World	GUZTIRA	\$373,948,263,890
2017	Import	Mexiko	World	GUZTIRA	\$420,394,594,048
2017	Export	Mexiko	World	GUZTIRA	\$409,396,273,667
2018	Import	Mexiko	World	GUZTIRA	\$464,294,262,714
2018	Export	Mexiko	World	GUZTIRA	\$450,655,468,309
2019	Import	Mexiko	World	GUZTIRA	\$467,293,167,276
2019	Export	Mexiko	World	GUZTIRA	\$472,272,870,507

Iturria: <https://comtrade.un.org/data/>: azken bisita: 2020/06/05.

Goiko taulatik ondorioztatzen da Mexikoren **balantza komertziala estrukturaliki negatiboa** dela, eta joera hori areagotu egin da Estatu Batuekiko tentsio komertzialengatik eta petrolioaren prezioak mundu osoan izandako gorabeherengatik, halere, joera hautsi egin zen 2019an, esportazioak inportazioak baino 5.000.000 USD handiagoak izan zirelako. Baina **2019an esportazioek dinamismoa galdu zuten muga-zergei buruzko politika protekzionistagoak eta Estatu Batuen eta Txinaren arteko "gerra" komertziala** direla medio. Horren ondorioz, inbertsioa murriztu egin zen, manufaktura industria globala moteldu egin zen eskaera jaitsaraziz, eta horrek eragin handia izan zuen automozio industrian. Ondorioz, Mexikoko manufaktura arloko esportazioek behera egin zuten, bere hazkunde-eritimoa moteldu egin zelako.



Gutzizko esportazioak % 2,3 hazi ziren guztira, petrolio-enpresen % 15,1eko uzkuetzearen eta petrolio sektorekoak ez direnen % 3,6ko hazkundearen ondorioz. Petrolio sektorekoak ez direnen kasuan, manufakturako esportazioak % 3,4 hazi ziren, nahiz eta aurreko urtean hazkunde hori % 9,1ekoa izan zen; automozio sektorean aurreko urtean baino hazkunde dezente txikiagoa erregistratu zen, hain zuzen, % 3,9koa (2018an % 12,2koa izan zen), eta hori kezagarria da, automozio sektoreko produktuak direlako Mexikok gehien esportatzen dituenak (esportazio guztien % 10,9).

Testuinguru horretan, balantza komertziala positiboa izan zen, neurri batean, barneko jardura ekonomikoak behera egin zuelako, bitarteko intsumoen (% 0,8), kapital-ondasunen (% -8,9) eta kontsumo-ondasunen (% -3,1) inportazioen uzkurduragatik.

Aipatzekoa da Mexikoko **harreman komertzialak bere bazkide nagusi den AEBen harremanen menpe daudela**. Mexikoko ekonomiak lotura estua du jardura estatubatuarrekin, eta harekiko menpekotasun handia du moneta politikari dagokionez. Hala, AEBekiko jarduerak Mexikoko esportazio guztien hiru laurdenak ordezkatzen ditu (2018an % 76,5, MMEren arabera).

Donald Trump presidentearekin TLCAN ituna birnegoziatzeko abiatutako urratsek arrisku larrian jarri dute Mexikoren merkataritza azken urteotan. Estatu Batuetako eta Kanadako kongresuek arazo handiak izan zituzten Estatu Batuek, Mexikok eta Kanadak sinatutako akordio berria (T-MEC) berresteko; aldiz, Mexikon berretsia zegoen lehenagotik. Baina, behin akordioa onartutakoan, badirudi aurreikuspenak positiboak direla Mexikorentzat, horixe baita 2020an herrialdearen suspertze ekonomikoa azkartuko duen faktore nagusietako bat. Baina Covid-19ak ekarri duen testuinguru sozioekonomiko berri honetan, antza denez, **inpaktua positiboa izango bada ere, susperraldia atzeratu egingo da 2020ko azken hiruhilekora eta 2021eko ekitaldi ekonomikora** (betiere birusa zuhurtasunez kudeatzen bada, eta une honetan bizi dugun salbuespen-egoera ez bada luzatzen udatik aurrera).

ekoizpen komuna onuragarria da bai Mexikorentzat eta bai Estatu Batuentzat; prozesu horren bidez, ondasun bat Estatu Batuetan diseinatzen da, Mexikon mihizatzen da eta Estatu Batuetara itzultzen da ekoizpenaren azken urratsak emateko. **Sistema hori bereziki garrantzitsua da automozio sektorearentzat**. Bi taula hauetan zerrendatuta daude Mexikoren bazkide komertzial eta hornitzaile garrantzitsuenak (2. eta 3. taulak):

5. taula: Bazkide komertzial garrantzitsuenak (2019) (esportazioen %)

Estatu Batuak	% 76,5
Kanada	% 3,1
Txina	% 1,6
Alemania	% 1,6
Brasil	% 1,0
Kolonbia	% 0,8
Japonia	% 0,7
Herbehereak	% 0,5
Hego Korea	% 0,5
Erresuma Batua	% 0,5

6. taula: Hornitzaile garrantzitsuenak (2019) (inportazioen %)

Estatu Batuak	% 46,6
Txina	% 18,0
Japonia	% 3,9
Alemania	% 3,8
Hego Korea	% 3,6
Kanada	% 2,3
Malaysia	% 2,0
Italia	% 1,4
Brasil	% 1,4
Thailandia	% 1,4

Iturria: Comtrade (<https://comtrade.un.org>): azken bisita: 2020/06/24.

Taula horietan argi ikusten da Mexikok **menpekotasun handia** duela **AEBekiko**, bai esportazioen portzentajearen eta baita ere inportazioetan; izan ere, **hornitzaile nagusia** izateaz gain, **merkatu kuotaren ia erdia** ordezkatzen du (% 46,6). Baliteke pesoak azkenaldian izan duen balio-galera pizgarri bat izatea AEBekiko zein Europar Batasunarekiko (EB) esportazioentzat, Mexikoko produktuak merkeagoak izango baitira ekonomia horientzat. Halere, baieztapen hori zalantzan jarri behar da, esan bezala, AEBek kuota oso handia baitute hornitzaile gisa Mexikoko merkatuan. Argi dago *handicap* hori arindu edo areagotu egingo dela Mexikoko bankuek kredituak emateko duten disponibilitatearen arabera



(eta kredituen errendimenduen arabera) eta enpresa amerikarrek deskontuak emateko, ordainketak atzeratzeko eta finantzaketa arloko bestelako erraztasunak emateko duten malgutasunaren arabera. Hori guztia oso garrantzitsua izango da, Mexiko eta AEBen arteko ekoizpen-katea ziklikoa delako neurri handi batean.

Orobat aipatzekoak dira **Txinarekiko harreman komertzialak**, inportazioen portzentajea asko hazi baita azken hamar urteetan, **inportazio guztien % 20 ingurura** iristeraino. Inportazio gehienak **manufaktura sektorekoak** dira, eta balio handiena dutenak hauek dira: ekipo elektriko eta elektronikoak, erreaktore nuklearretarako makinak, makineria, ekipo optikoak eta ekipo medikoak, plastikozko artikulua eta burdin eta altzairuzko manufakturak. Beraz, inportazioek argi erakusten dute Mexikoko jarduera ekonomikoak Txinan manufakturatutako produktuekiko duen menpekotasuna, bai bitarteko intsumoetan eta baita ere kontsumorako amaierako produktuetan.

Bestalde, **Txinak** batez ere **ondasun primarioak inportatu ditu Mexikotik**: mineralak, aluminioa, burdina eta altzairua, zura, larruak, gatza, kimikoak, e.a. Horrez gain, ikusten da esanguratsuak izan direla manufakturatutako zenbait produkturen inportazioak, hala nola, autoak, gailu elektriko eta elektronikoak, makineria eta plastikozko artikulua. Zentzu horretan, ondoriozta liteke bi ekonomien arteko merkataritzaren egitura bi faktore hauen arabera eratzen ari dela: batetik, **Txinako ekonomiak duen baliabide primarioen premia bere oinarri esportatzailea handitu ahal izateko** eta, bestetik, **Mexikok duen premia kontsumo-ondasunak eta bitarteko ondasunak eskuratzeko**, ondasun horien bitartez esportazioetara bideratutako produkzioa **handitzeko** (inportazio gehienak ez dira esportazio gisa itzultzen Txinara, zeren goiko taulan ikus daitekeenez % 1,6a baino ez dute ordezkutzen).

Gainerako ekonomiekiko harremanari dagokionez, Mexikok **merkataritza libreko dozena bat itun** sinatu ditu munduko berrogei bat herrialderekin. Bestalde, Mexikok merkataritza libreko itun bat dauka Europar Batasunarekin 2000. urtetik, akordio komertzial bat du Japoniarekin 2005etik, eta 2012an Pazifikoko Aliantza osatu zuen Kolonbia, Txile eta Perurekin. Azkenik, Mexikoko esportazioak EBra (% 4,7) eta Kanadara (% 3,1) ere iristen dira. Inportazioei dagokienez, hauek dira jatorri garrantzitsuenak: Estatu Batuak (% 46,6), Txina (% 18), EB (% 11,4) eta Japonia (% 3,9). Bukatzeko, eta Mexikoko **kanpo merkataritzan garrantzi gehien duten produktuei** dagokienez, lehenago ere aipatu dugu manufaktura sektorea dela garrantzitsuena (eta, batez ere, automozio sektorea). Hona hemen Mexikok inportatu eta esportatu dituen produktuei buruzko hainbat datu.

7. taula: Esportatutako produktu garrantzitsuenen zerrenda (2019) (balio erlatiboetan)

450.700 milioi USDeko esportazioak (2019)	
Autoak eta automoziozko bestelako ibilgailuak...	% 10,9
Traktoreen eta automoziozko ibilgailuen zatiak eta osagarriak...	% 6,6
Datuak tratatu edo prozesatzeko makina automatikoak eta bere unitateak; irakurgailu magnetiko edo optikoak, kodifikatutako datuak erregistratzeko makinak eta datu horiek tratatu edo prozesatzeko makinak, beste inon sailkatu gabe daudenak.	% 6,5
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olio gordinak	% 5,9
Merkatu-gaiaren garraiorako autoak...	% 5,3
Telefonia edo telegrafiko gailu elektrikoak...	% 3,7
Hariak, kableak (ardazkideak barne) eta gainerakoak...	% 2,8
Telebista hargailuak...	% 2,8
Traktoreak eta automotorrak	% 2,2
Medikuntza eta kirurgiako tresna eta gailuak...	% 1,7

Iturria: Comtrade (<https://comtrade.un.org>): 2018. urtea; azken bisita: 2020/04/24.

8. taula: Inportatutako produktu garrantzitsuenen zerrenda (2019) (balio erlatiboetan)

464.300 milioi USDeko inportazioak (2019)	
Petrolioaren edo mineral bituminosoen olioak	% 7,1
Traktoreen eta automoziozko ibilgailuen zatiak eta osagarriak...	% 5,9
Zirkuitu integratuak eta mikro-egitura elektrikoak...	% 4,2
Datuak tratatu edo prozesatzeko makina automatikoak...	% 2,5
Autoak eta automoziozko bestelako ibilgailuak...	% 2,1
Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburu gaseosoak	% 2,1
Telefonia edo telegrafiko gailu elektrikoak...	% 2,0



Destinatu gisa identifika daitezkeen zati eta osagarriak...	% 1,7
Etengailuak, kommutadoreak, erreleak, zirkuitu-etengailuak...	% 1,4
Irrati-telefoniako igorgailuak, irrati-telegrafoak...	% 1,2

Iturria: Comtrade (<https://comtrade.un.org>): 2018. urtea; azken bisita: 2020/05/24.

4.3. Atzerriko inbertsioa

4.3.1. Testuinguru orokorra

Herralde gorakorren artean Mexiko da atzerriko inbertsio zuzenera (AIZ) gehien irekita dagoenetako bat; zehazki, **munduko hamabosgarren AIZ hartzailea da**. Mexikorako AIZ fluxuek gorabehera handiak izaten dituzte, nazioarteko talde handien sarrera eta irteeren arabera.

Gorabehera horiek azken bost urteotako mailetan mantendu badira ere, oso urrun daude 2013ko 48.500 milioi USDeko errekorretik. Kalkulatu da AIZren guztizko erreserbak 485.800 milioi USDekoak direla, herraldeko BPGaren % 39,7 inguruak, alegia.

9. taula: Atzerriko Inbertsio Zuzena (2016-2018) (milioi USD)⁶

Atzerriko Inbertsio Zuzena	2016	2017	2018	2019
Sartzen den AIZen fluxua (milioi USD)	30.865	32.091	31.604	32.921,2
AIZ hornikuntza (milioi USD)	473.424	490.574	485.807	n/a
Greenfield inbertsio kopurua***	485	565	600	n/a
Sartzen diren AIZak (KFEGren %****)	11,1	n/a	n/a	n/a
AIZ hornikuntza (BPGaren %)	45,3	n/a	n/a ⁷	n/a

Mexikoko Gobernuak Ekonomia Idazkaritzak eginiko kalkulu eta estimazioen arabera, 2019ko urtarrilaren eta abenduaren artean 32.921 milioi USD atzeman ziren, aurreko ekitaldi ekonomikoan baino **% 4,2 gehiago**.

Inbertsioen jatorriari erreparatu gero, ikusten da gehienak **Estatu Batuetatik, Espainiatik, Kanadatik eta Alemaniatik** datozela. Bestalde, hauek dira atzerriko inbertsio gehien jasotzen duten **sektoreak**: **manufaktura** (batez ere automozio industria), **argindar, ur eta gas hornikuntzaren** finantzaketa, txikizkako eta handizkako merkataritza, eta **finantza zerbitzuak**. Atzerriko inbertsio gehienak **Estatu Batuekiko mugatik hurbil dauden herrietan zentratzen dira** (han daudelako mihiztadura fabrika gehienak) eta baita ere hiriburuan. Turismoaren industria sendoa dela medio, Yucatan Penintsulak ere atzerriko inbertsio ugari jasotzen ditu.

10. taula: Herralde inbertitzaileak eta sektoreak (2018-2019) (balio erlatiboak)

Herralde inbertitzaile garrantzitsuenak	2018ko %	2019ko %	Inbertsio gehien jasotzen dituzten sektoreak	2018ko %	2019ko %
Estatu Batuak	38,8	36,9	Manufaktura-industria	49,1	47,2
Espainia	13,1	15,5	Argindar, gas eta ur hornidura	13,5	3,8
Kanada	10,1	10,4	Txikizkako eta handizkako merkataritza	8,9	9,7
Alemania	8,2	10,1	Finantza eta aseguru zerbitzuak	7,9	15,3
Japonia	6,7	6,9	Meatzaritza	4,4	5,5


⁶ Iturria: UNCTAD, eskuragarri dauden azken datuak; azken bisita: 2020/05/24

⁷ Oharra: * CNUCYDen errendimendu-adierazleak oinarritzat hartzen du erlazio hau: herraldeak mundu mailako AIZ fluxuetan duen posizioa eta munduko BPGan duen parte-hartzea. ** CNUCYDen adierazle potentzialak oinarritzat dauzka 12 adierazle ekonomiko eta estruktural, besteak beste, BPGa, kanpo-merkataritza, atzerriko inbertsio zuzena, azpiegitura, energia kontsumoa, I+G, hezkuntza, herralde-arriskua. *** *Greenfield* inbertsioak atzerriko inbertsio zuzen mota bat dira, non matrizeak filial bat ezartzen duen atzerriko herralde batean, instalazio operazional berriak eraikiz oinarritik. **** Kapital finkoaren eraketa gordinak (KFEG) neurtzen du enpresek, gobernuak eta etxeek eskuratutako aktibo finkoei eginiko gehikuntzen balioa, saldutako edo desegindako aktibo finkoen lagapenak kenduta.



Iturria: [Ekonomia Idazkaritza](#) – Eskuragarri dauden azken datuak (2020/02/18).

1. grafikoa: Mexikoko AIZ jatorriko herrialdearen, inbertsio motaren eta sektorearen arabera



2020. urterako espektatibak positiboak ziren, ekonomia globalarentzat aurreikusitako atzeraldia gorabehera. Hala, desazelerazio orokor hori Mexikora iritsiko balitz ere, badaude **AIZ sustatu lezaketen** hainbat faktore, batik bat, **T-MEC akordioa berretsi izana** eta **pesoaren balio-galera** (balio-galera horrek lursailen erosketa-kostuak eta soldatak merkatuko lituzke). Baina, Covid-19ak sortutako testuinguru ziurgabe berri honetan, badirudi 2020rako aurreikuspenak 2020ko azken hiruhilekoan eta 2021ean iritsiko direla (kasurik onenean).

4.4. Enplegua

Oro har, Mexikoko enpleguaren ezaugarri nagusiak dira **Lanaren Informalitate-tas altua**⁸ eta langileen **Errotazio-maila handia**. Neurri handi batean, egoera hori herrialdeko desberdintasun ekonomiko eta sozialari zor zaio, zeinak berekin baitakar **lan arloko marko juridiko eskasa** (lan arloko eskubideak prekarioak dira oro har) eta **langile-masa handi bat testuinguru arautu horretatik kanpo kokatzea**. Hala, desazelerazio globala gorabehera, eta betiere Munduko Bankuak emandako datuen arabera (2018an % 3,322koa izan zen), egia da Mexikok lortu zuela bere langabezia-tasa % 3,378an

⁸Unitate ekonomikoaren izaeragatik lan-arloan kaltebera den biztanleria landunaren proportzioa, lan-iturriagatik lan-lotura edo -mendekotasuna aitortuta ez dutenekin alderatuta (Iturria: INEGI).




mantentzea, baina egia da orobat sortutako enpleguaren kalitatea nahiko prekariora dela, batik bat kualifikaziorik ez duten langileen kasuan.

Taula honetan Mexikoko lan merkatuari buruzko adierazle garrantzitsuenak ageri dira, ahalik eta modu zehatzenean islatzeko lan merkatuaren egoera:

11. taula: Enplegu adierazleak (2019) (balio absolutu eta erlatiboak)

ENPLEGU ADIERAZLEA (2019)	milioi	%
Biztanleria Ekonomikoki Aktiboak ⁹	57.625.521	60,60
Enplegua guztira / biztanleria okupatua (milioiak)	55.677.778	96,62
BIZTANLERIA AKTIBOAK SEKTOREKA		
- Lehen sektorea	6.904,044	12,4
- Industria	13.919.444	25
- Zerbitzuak	34.854.289	62,6
Langabezia-tasa ¹⁰	1.946.590	3,378
Azpiokupatutako biztanleria-tasa ¹¹	4.300.000	7,8
Lan arloko informaltasun-tasa	31.400.000	56,8
Sektore informaleko okupazio-tasa	15.300.000	27,67

Iturria: Munduko Bankua eta INEGI (azken kontsulta: 2020/04/10)



⁹Biztanleria ekonomikoki aktiboa osatzen dute 12 urte edo gehiago dituzten eta jarduera ekonomikoren bat egin duten pertsona guztiek (biztanleria okupatua) edo jarduera hori aktiboki bilatu dutenek (biztanleria desokupatu irekia). Neurriak arindu zireneko astearen aurreko bi hilabeteetan, bi multzotan sailkatzen da BEA: biztanleria okupatua eta biztanleria desokupatu irekia edo desokupatu aktiboak (Iturria: INEGI).

¹⁰Inkestaren erreferentzia-asteen lanordu bat ere egin ez dutenak, baina egiteko prest zeudela adierazi zutenak eta lana bilatzeko jardueraren bat egin zutenak (Iturria: INEGI).


¹¹Egungo okupazioak eskatzen duena baino lanordu gehiago eskaintzeko premia eta disponibilitatea duen biztanleria okupatuaren portzentajea (Iturria: INEGI).



2. grafikoa: Okupazioa sektoreka (datu erlatiboak)

Aztertzen badugu **biztanleria okupatua** bere lan arloko harreman motaren arabera, ondorioztatzen da gutzitzkoaren bi heren baino gehiago (% 68,2), hau da, 38 milioi, ordainpeko langile subordinatuak direla; 12,5 milioi (% 22,5) norbere konturako langileak, ordainpeko langilerik enplegatu gabe aritzen direnak; 2,7 milioi (% 4,8) ekoizpen-ondasunen jabeak, ordainpeko langileak dituztenak; eta 2,5 milioi (% 4,5) ordainsaririk gabeko langileak.

3. grafikoa: Hileroko batez besteko diru-sarrerak¹² (USD)



Biztanleria okupatuak era askotako zereginak egiten ditu, baina intentsitate desberdinarekin: langileen % 6,4k astean 15 lanordu baino gutxiago egiten dituzte; beste muturrean, aldiz, langileen % 27,7k astean 48 orduetik gora egiten dituzte (astelehenetik larunbatera). Batez beste, biztanleria okupatuak astean 43 lanordu egin zituen 2019ko urria eta Abendua bitartean. Soldatari dagokionez, 2020an Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) % 20 handitu da legez. Hala, LGS 123,22 pesokoa da egunean (4,7 euro/egunean, 2020/04/10eko kanbio-tasa ofizialaren arabera) estatu federal guztietan, baina badaude salbuespen batzuk: “Gune Libre” edo “Iparraldeko Mugako Eskualde”¹³ delakoan kokatutako zenbait udalerritan 185,56 pesokoa da egunean (7,1 euro/egunean)¹⁴.

¹²Kontuan izan LGS % 20 handiagoa dela 2020an.

¹³**Iparraldeko Mugako Eskualdea** edo **Zergarik gabeko Eremua** sortu da Garapen Plan Nazionalaren barruan, Mexikoko zenbait eskualdetako garapen-maila eskasari erantzuteko. Eremu horrek hainbat onura eskaitzen ditu: onura fiskal garrantzitsuak, gutxieneko soldata bikoiztea eta energiaren prezioak AEBetako hegoaldeko estatuetaoekin homologatzea. Zergarik gabeko Eremuko estatuak edota udalerririk zeintzuk diren kontsultatzeko: <https://www.gob.mx/zonalibredelafronteranorte>

¹⁴Oharra.- Eskolatze mailari dagokionez, Hezkuntza eta Osasun sektorean, 10 okupatutik 7k goi-mailako eskolatzea dute; aldiz, Nekazaritza eta Abeltzaintza eta Eraikuntza sektoreak dira Lehen Hezkuntzako ikasketadun langile gehien dituztenak (% 58,6 eta % 36,2 hurrenez hurren). Hortaz, Nekazaritza eta Abeltzaintza sektoreko langileak dira batez besteko diru-sarrera txikiak dituztenak.




4.5. Perspektiba ekonomikoak

Aurreikuspenen arabera, **mundu mailako hazkundera % 2,5 ingurukoa izango da 2020an**, ozta-ozta gaudituko duelarik iazkoa (krisia izanenez gerotiko hazkunde apalena). Baliteke hazkundera apur bat handiagoa izatea, baldin eta tentsio komertzialak murrizten badira eta ziurgabetasuna leuntzen bada. Halere, egoerak okerrera egiteko arriskua dago.

Mexikoren aurreikuspenak ere antzekoak dira, ildo horretatik, 2020rako espektatibak **ez dira batere onak**, munduko ekonomia estankatua dagoelako, eta **Covid-19aren ondoriozko krisiak** areagotu egingo du joera hori. Horri guztiari gehitu behar zaizkio **petrolioaren prezioak eragindako krisia** eta **pesoak** dolarrarekiko eta euroarekiko **duen balio-galera handia**.

4. grafikoa: 2020ko BPGaren AURREIKUSPENAK (portzentajezko hazkunde-tasak) Data: 2020ko lehen hiruhilekoaren amaieran



Iturria eta azken bisita: (1) Munduko Bankua (2020/04/13); (2) Union Bank of Switzerland (2020/04/13); (3) ELGA (2020/03/02); (4) Banxico (2020/04/15); (5) NDF (2020/04/15)

Manufaktura sektorearen desazelerazioak inpaktu zuzena izango du Mexikoko ekonomian eta, **NDFren arabera**, BPGak **6,6ko beherakada** izango du.

Hala, goiko grafikoetatik **bi ondorio argi** atera daitezke: batetik, aipatutako iturri guztiak bat datoz esatean **Mexikoko ekonomiak atzeraldi handi bat jasango duela**; hau da, 2020ko ekitaldi ekonomikoan ez da hazkunderik izango. Eszenatoki onenean, eta pentsatuz Covid-19aren fenomenoak ez duela iraungo bigarren hiruhileko ekonomikotik aurrera, hobekuntza/suspertze zantzuak agertu daitezke urtearen amaieran eta 2021aren hasieran. Bestalde, nahiz eta iturri guztiak bat datozen esatean Mexikoko ekonomia atzeraldian murgilduko dela, BPGaren desazkunderaren **kalkuluak nahiko desberdinak dira**. Grafikoan ikusten den bezala, estimazioak -0,7 eta -7,6 puntu artekoak dira, hau da, zazpi puntuko aldea dago, eta beste kalkulu batzuk bi mutur horien arteko batez bestekoan kokatzen dira. Aipatzekoa da **7 puntuko alde hori sekulakoa dela, bai balio erlatiboetan eta baita ere absolutuetan**. Badirudi Covid-19ak sortutako ziurgabetasun-inguruneak eta duela bizpahiru urtetik Mexikon nagusitzen ari diren desazelerazio-faktoreek ez dutela uzten egiten epe labur eta ertaineko aurreikuspen argirik.

Hauk dira ekonomian eragin zuzena izango duten faktoreetako batzuk: **(i)** manufaktura sektorearen desazelerazioa **(ii)** Covid-19ak eragindako krisia **(iii)** petrolioaren krisia **(iv)** T-MEC akordioaren onarpena **(v)** pesoaren beherakada dolarrarekiko eta euroarekiko **(vi)** AMLoren gobernua Covid-19aren inpaktuari aurre egiteko onartutako politikak eta gainerako politika ekonomiko sozialak.



5. KANPO-MERKATARITZA

Kanpo-merkatariak garrantzi handia hartu du maila makroekonomikoan, **BPGaren % 80,4ra iritsi delarik 2018an**. Kanpo sektorea gero eta garrantzitsuago bihurtu da azken 5 urteetan, izan ere, 2014an BPGaren % 65 ordezkatzeko zuten eta, gaur egun, gorago aipatutako zifra horretaraino iritsi da. Oro har, **balantza komertziala negatiboa izan da estrukturalki**, 2019an izan ezik, 5.000.000 dolarreko saldo positiboa izan baitzuen urte horretan.

5. grafikoa: Mexikoko kanpo-merkatariaren adierazleak (2014-2018)

Kanpo-merkatariaren adierazleak	2014	2015	2016	2017	2018
Kanpo-merkatariak (<i>BPGaren %</i>)	65,0	71,2	76,1	77,2	80,4
Balantza komertziala (<i>milioi USD</i>)	(2.795)	(14.599)	(13.070)	(10.984)	(13.796)
Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (<i>milioi USD</i>)	(16.087)	(24.375)	(22.036)	(20.852)	(22.719)
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (<i>urteko hazkundea % -tan</i>)	5,9	5,9	2,8	6,4	5,9
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (<i>urteko hazkundea % -tan</i>)	7,0	8,4	3,6	4,2	5,9
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (<i>BPGaren %</i>)	33,1	36,6	39,0	39,5	41,2
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (<i>BPGaren %</i>)	31,9	34,6	37,1	37,7	39,3


Iturria: Munduko Bankua; eskuragarri dauden azken datuak (2010/04/19)

Balantza komertzialari buruzko atalean aipatu bezala, Mexikoko kanpo-sektoreak **lotura estua du AEBekin**, bere hornitzaile nagusia delako eta Mexikoko esportazioen % 80 inguru jasotzen duelako. Ekoizpen komuna onuragarria da bai Mexikorentzat eta bai Estatu Batuentzat; prozesu horren bidez, ondasun bat Estatu Batuetan diseinatzen da, Mexikon mihizatzen da eta Estatu Batuetara itzultzen da ekoizpenaren azken urratsak emateko.

Menpekotasun hori kaltegarri izan daiteke askotan Mexikorentzat, baina **AEBekin eta Kanadarekin** arestian sinatutako akordioek (**T-MEC**) **pizgarri gisa funtzionatuko dute herrialdeen arteko transakzioetarako**. Gainera, kontuan izan behar da Mexikok kokaleku estrategikoa duela. Ituna indarrean sartu baino lehen ere kontinentera eta Ipar Amerikara esportatzeko sarbidea zen, eta ituna sinatu ondoren zubi hori sendotu egingo da, merkatu-gaien mugimendua erraztuz.

Txina, Kanada eta Alemaniak ere harreman estuak dituzte Mexikorekin, neurri txikiagoan bada ere. 7. eta 8. grafikoetan zerrendatuta daude esportazioen jomuga-herrialde garrantzitsuenak eta Mexikoren hornitzaile nagusiak:

6. grafikoa: Esportazioen portzentajea (2018) (*bezero nagusiak*)





Iturria: Comtrade, eskuragarri dauden azken datuak (2010/04/19).

Ikusten da Mexikorekin harreman gehien duten herrialdeak ia berberak direla bai esportazioetan eta bai inportazioetan. **AEBak eta Txina** (eta neurri txikiagoan, Kanada eta Alemania) dira Mexikoren **kanpo-sektoreko aktore nagusiak**.

Transakzioen xede diren produktu nagusiei erreparatuz gero, ikus liteke lehentasunak bertsuak direla bai esportazioetan eta bai inportazioetan. Hau da, **ibilgailuak eta makineria** -berenmodalitate desberdinetan- eta euren deribatuak dira atzerrian gehien salerosi diren produktuak. **Mineralak eta erregaiak** ere garrantzitsuak dira balantza komertzialaren egituraren barruan. 10. eta 11. tauletan ikusten da gehien inportatzen eta esportatzen diren 5 produktuak berberak direla, nahiz eta aldaketak egon daitezkeen posizioetan.

12. taula: Esportatutako produktuen zerrenda lehentasun ordenaren arabera (2017-2019) (mila dolar amerikar - USD)

Kodea (TARIC)	Produktuaren azalpena	2017an esportatutako balioa	2018an esportatutako balioa	2019an esportatutako balioa
GUZTIRA	Produktu guztiak	409.476.446	450.920.374	472.272.871
87	Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko beste ibilgailu batzuk, euren zatiak eta osagarriak	101.739.526	115.509.368	121.270.995
85	Makina, aparatu eta material elektrikoak eta horien zatiak; grabaketa- edo erreproduktzio-gailuak	81.640.876	81.923.266	80.952.880
84	Makina, gailu eta artefaktu mekanikoak, erreaktore nuklearrak, galdarak; makina horien zatiak	65.889.252	75.386.126	80.702.519
27	Erregai mineralak, olio mineralak eta haietatik destilatutako produktuak, material bituminosoak	22.632.116	29.718.580	26.576.007
90	Optika, argazkigintza edo zinematografia, neurraketa, kontrol edo zehaztasuneko tresna eta gailuak;	17.474.844	19.045.764	19.875.532
39	Plastikoa eta bere manufakturrak	8.977.302	9.544.293	10.780.921
94	Altzariak; altzari mediko-kirurgikoak, oheko artikulua eta antzekoak; argiztapen gailuak	10.675.395	10.597.580	10.297.609
99	Beste ezein arlotan zehaztu gabeko materialak	5.293.596	6.348.582	8.855.527
07	Barazkiak, landareak, elikadurarako sustrai eta tuberkuluak	6.697.858	7.210.441	7.809.083

Iturriak: International Trade Statistic (ITS): www.trademap.org. CCIren kalkuluak, UN COMTRADE 2019ko urtarrietik eginiko estatistiketan oinarrituak. CCIren kalkuluak, Estatistika eta Geografiako Institutu Nazionalak (INEGI) 2015eko urtarrietik 2019ko urtarriera eginiko estatistiketan oinarrituak.

13. taula: Inportatutako produktuen zerrenda lehentasun ordenaren arabera (2017-2019) (mila dolar amerikar - USD)

Kodea (TARIC)	Produktuaren azalpena	2017an inportatutako balioa	2018an inportatutako balioa	2019an inportatutako balioa
GUZTIRA	Produktu guztiak	420.369.150	464.276.595	467.293.167
85	Makina, aparatu eta material elektrikoak eta horien zatiak; grabaketa- edo erreproduktzio-gailuak	85.865.846	94.898.887	94.777.897
84	Makina, gailu eta artefaktu mekanikoak, erreaktore nuklearrak, galdarak; makina horien zatiak	71.052.423	77.461.397	77.289.315
87	Automobilak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko beste ibilgailu batzuk, euren zatiak eta osagarriak	41.642.636	43.056.213	50.231.087
27	Erregai mineralak, olio mineralak eta haietatik destilatutako produktuak, material bituminosoak	35.531.073	46.331.740	40.924.812
39	Plastikoa eta bere manufakturrak	23.163.624	25.295.291	24.585.485



99	Beste ezein arlotan zehaztu gabeko materiak	15.068.689	17.161.437	17.979.460
90	Optika, argazkigintza edo zinematografia, neurketa, kontrol edo zehaztasunezko tresna eta gailuak	15.132.160	15.255.088	16.464.945
72	Galdaketa, burdina eta altzairua	10.207.304	11.641.145	10.753.276

Iturriak: *International Trade Statistic (ITS)*: www.trademap.org. CClren kalkuluak, *UN COMTRADE*k 2019ko urtarriletik eginiko estatistiketan oinarrituak. CClren kalkuluak, *Estatistika eta Geografiako Institutu Nazionalak (INEGI)* 2015eko urtarriletik 2019ko urtarrilera eginiko estatistiketan oinarrituak.



6. ALDEBIKO HARREMANAK

6.1. Euskadiren eta Mexikoren arteko merkataritza


Mexikoren eta Euskadiren arteko balantza komertzialari dagokionez, **Mexikok 289.770 mila euroko superabita** lortu zuen 2019ko ekitaldi ekonomikoan: Euskadik 493.801 mila euro esportatu zituen Mexikora, eta Mexikok 783.571 mila euro esportatu zituen Euskadira, DATACOMEXek emandako datuen arabera.

14. taula: Euskadiren eta Mexikoren arteko inportazioak eta esportazioak (2016-2020) (milaka eurotan)

	2016	2017	2018	2019	2020 (1H)	% 18/19
Esportazioak	475.037,93	654.731,74	644.465,67	493.800,44	77.931,07	-170.665,23
Inportazioak	525.479,84	702.068,35	915.972,87	783.570,79	138.703,43	-132.402,08
Balantza komertziala	-50.441,91	-47.336,61	-271.507,2	-289.770,35	-60.772,36	

Iturria: DataComex. Azken bisita: 2010/04/20. Oharra: (i) produktu taldeari dagokionez: Garraioidea duten "sektore guztiak": Entregatzeko baldintzak dituzten "garraio guztiak". (ii) 2020ari dagokionez, lehen hiruhilekoko datuak dira eta behin-behinekoak dira.

7. grafikoak: Euskadiren eta Mexikoren arteko esportazio/inportazioen historikoa (milaka eurotan)



Iturria: DataComex. Azken bisita: 2010/04/20. Oharra: (i) produktu taldeari dagokionez: Garraioidea duten "sektore guztiak": Entregatzeko baldintzak dituzten "garraio guztiak". (ii) 2020ari dagokionez, lehen hiruhilekoko datuak dira eta behin-behinekoak dira.

Hala, grafikoak argi erakusten du Euskadirekiko balantza komertziala **estruturalki negatiboa** dela 2010etik aurrera, batik bat, Euskadik egin dituen hidrokarburo erosketengatik. 2010. urtea inflexio-puntu argia izan zen, ordura arte Euskadik superabiterako joera izan baitzuen; hain zuzen, azken bi ekitaldietan **argi ikusten da inportazio eta esportazioen kopuruak elkarrengandik urruntzen ari direla**, eta aurreikuspenek diote balantzak joera horri eutsiko diola.

Bi herrialdeek elkarri salerosten dizkioten produktu nagusiei dagokienez (jarraian datozen 13. eta 14. taulak), agerikoa da Euskaditik Mexikorako esportazio guztien % 57 baino gehiago automozio eta makina-erreminta sektoreetakoak direla. Inportazioei erreparaturuz gero, ikusten da % 95 erregaia, olioak eta mineralak direla. Mexiko hamaikagarren herrialdea da Euskadiren esportazio hartzaileen artean; inportazioei dagokienez, berriz, zazpigarren herrialdea da.

15. taula: Euskadik Mexikora esportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)

TARIC	MILAKA EURO	ESPORTAZIO GUZTIEN %



84 Makinak eta gailu mekanikoak	140.128,10	% 57	% 28,37
87 Automobilak; traktoreak	74.164,38		% 15,01
85 Gailu eta material elektrikoak	67.806,22		% 13,73
72 Burdinurtua, burdina eta altzairua	43.013,68		% 8,7
73 Galdaragintzako manufakturak, burdina/altzairua	34.862,75		% 7,06
90 Optikako, neurketako eta medikuntzako gailuak	20.108,53		% 4,04
75 Nikela eta bere manufakturak	11.476,95		% 2,32
40 Kautxua eta bere manufakturak	10.148,79		% 2,05
03 Arraina, krustazeoak, moluskuak	7.821,28		% 1,6
94 Altzariak, aulkiak, lanparak	7.299,24		% 1,5
27 Erregaiak, olio mineralak	7.128,92		% 1,46
82 Metalezko tresna eta aiztoak	6.685,17		% 1,37
86 Trenbideetako ibilgailuak eta materiala	6.366,15		% 1,28

Iturria: DataComex: Azken bisita: 2020/04/24

16. taula: Euskadik Mexikotik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)


TARIC	MILAKA EURO	ESPORTAZIO GUZTIEN %
27 ERREGAIK, OLIO MINERALAK	742.175,01	% 94,71
84 MAKINA ETA GAILU MEKANIKOAK	10.453,15	% 1,34
85 GAILU ETA MATERIAL ELEKTRIKOAK	6.173,85	% 0,78
28 PRODUKTU KIMIKO INORGANIKOAK	4.240,56	% 0,54
76 ALUMINIOA ETA BERE MANUFATURAK	2.794,36	% 0,36
73 GALDARAGINTZAKO MANUFATURAK, BURDINA/ALTZAIRUA	2.710,85	% 0,35
75 NIKELA ETA BERE MANUFATURAK	2.591,01	% 0,33
74 KOBREA ETA BERE MANUFATURAK	2.512,49	% 0,32
29 PRODUKTU KIMIKO ORGANIKOAK	1.423,69	% 0,18
88 HEGAZKINAK; PRODUKTU ESPAZIALAK	1.418,55	% 0,18

Iturria: DataComex. Azken bisita: 2020/04/21

Behin identifikatu ondoren Euskadiren eta Mexikoren arteko salerosketetan nagusi diren produktuak, interesgarria da zehaztea **zein den Euskadiren posizionamendua Espainiaren barruan**. Hala, lehenik eta behin aztertuko dugu Euskadik Espainiako esportazio guztiekiko duen portzentajea. Euskadi da **Mexikora produktu gehien esportatzen duen hirugarren autonomi erkidegoa**, Valentziaren eta Kataluniaren atzetik.



8. grafikoa: Espainiaren eta Mexikoren arteko esportazioen historikoa (2016-2019) (autonomi erkidegoka banakatuta milaka eurotan)



Hala ere, Euskadik Espainiaren kanpo-merkataritzan duen benetako garrantzia zehazteko, ezinbestekoa da, batetik, identifikatzea zeintzuk diren gehien esportatzen diren produktuak, horrela jakiteko bat datozen Euskadik esportatzen dituenekin, eta bestetik, ikustea zein den gainerako autonomi erkidegoekiko duen posizionamendua, horrek erakusten digulako non dagoen lehia zuzena.

17. taula: Euskaditik eta Espainiatik Mexikora egiten diren esportazioen arteko alderaketa

ESPAINIA			EUSKADI	
Produktua (Taric)	Esportatutako guztizkoarekiko portzentajea (%)	Euskadiren kuota (%)	Produktua (Taric)	Esportatutako guztizkoarekiko portzentajea (%)
84 Makina eta gailu mekanikoak	18,85	17,30	84 Makina eta gailu mekanikoak	28,88
87 Automobilak, traktoreak	10	17,25	87 Automobilak, traktoreak	15,2
85 Gailu eta material elektrikoak	9,19	17,24	85 Gailu eta material elektrikoak	13,87
62 Puntuzkoak ez diren arropak	4,41	0,05	72 Burdinurtua, burdina eta altzairua	8,73
30 Produktu farmazeutikoak	3,63	0,35	73 Burdinurtuzko manufakturak	7,11
22 Edari ez alkoholikoak	3,17	3,9	90 Gailu optikoak	4,03
39 Material plastikoak	2,87	6,68	40 Kautxua eta bere manufakturak	2,3
33 Olio esentzialak	2,72	0,54	03 Arraina eta krustazeoak, moluskuak	2,02
61 Puntuzko arropak	2,53	0,02	94 Altzariak, aulkiak, lanparak	1,98
73 Burdinurtuzko manufakturak	2,49	32,10	27 Erregaiak, olio mineralak	1,48
72 Burdinurtua, burdina eta altzairua	2,44	40,93	83 Askotariko manufakturak	1,37

Iturria: Datacomex: Azken bisita: 2020/04/22.


Taulak argi erakusten du Espainiatik eta Euskaditik gehien esportatzen diren produktuak bat datozela, eta sektore hauetakoak direla nagusiki: automozioa, makineria eta gailu elektrikoak. Hala ere, badaude aipatu beharreko hainbat



desberdintasun: trenbideetako ibilgailuek garrantzi handia dute Euskadin; Espainian, berriz, arropak garrantzitsuagoak dira, eta sektore horrek ez dauka inolako pisurik Euskadin.

Azkenik, aipatzekoa da **Espainia 12. postuan** dagoela **Mexikotik inportatzen duten herrialdeen rankingean**. Hala, **Euskadiri** dagokionez eta CIVEXek¹⁵ emandako datuen arabera, **Mexikora esportatzen duten 354 enpresa daude**, eta hauxe da probintziakako banakapena:

9. grafikoa: Euskaditik Mexikora esportatzen duten enpresen banakapena probintziak



6.2. Euskadiren posizionamendua

Aurreko atalean aipatu bezala, Espainia Mexikoren hamabigarren hornitzailea da, eta manufaktura sektoreko produktuak salerosten ditu gehien, zehazki, automozio eta makineria sektorekoak. Aldi berean, horietan dira Euskaditik Mexikora gehien esportatzen diren produktuak, esportazio guztien % 54 inguru.

Dena den, jakin behar da Euskadi lehiakorra den termino erlatiboetan, batik bat bereziki garrantzitsuak diren sektoreetan. Zentzu horretan, interesgarria da aipatzea **Euskadik Mexikora bideratutako esportazio espainiarretan** duen pisua handiagoa dela guztizko esportazioetan duena baino:


10. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiatik Mexikorako guztizko esportazioetan (2019)

11. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiako guztizko esportazioetan (2019)

■ Gainerako autonomi erkidegoak ■ Euskadi



■ Gainerako autonomi erkidegoak ■ Euskadi



¹⁵ CIVEX: Euskadiko Industriaren eta Esportatzaileen Katalogoa: <http://www.industria.ejgv.euskadi.eus>



18. taula: Kuota rankinga sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaera hazkundearen arabera (2012-2017)

Tabla -23- Mexico. Ranking de cuota por sector en 2017 y ranking de evolución de cuotas según crecimiento 2012-2017

SECTORES	2017	SECTORES	Evol. 2017-2002	Evol. 2017-2012
86 Vehículos de vías férreas	11,93%	88 Navegación aérea o espacial	2,95%	2,82%
72B Barras y perfiles acero común	5,09%	73B Depósitos, recipientes	1,75%	1,78%
88 Navegación aérea o espacial	3,51%	85A Motores y generadores eléctricos	1,44%	1,41%
73B Depósitos, recipientes	2,97%	93 Armas y municiones	0,93%	0,89%
84C Máquinas herramienta para trabajar metal	1,96%	89 Navegación marítima o fluvial	0,27%	0,27%
84D Grúas y aparatos elevacion	1,79%	74 Cobre y sus manufacturas	0,26%	0,19%
85A Motores y generadores eléctricos	1,50%	85B Transformadores	-0,08%	0,18%
93 Armas y municiones	0,98%	87A Vehículos automóviles	0,13%	0,17%
22 Bebidas	0,58%	73D Otras manufacturas de hierro o de acero	0,12%	0,16%
73A Tubos y accesorios	0,46%	22 Bebidas	-0,11%	0,15%
82 Herramientas y útiles	0,45%	84E Equipamiento hosteleria y aparatos domésticos	0,24%	0,11%
87C Partes y accesorios	0,35%	84C Máquinas herramienta para trabajar metal	-1,45%	0,08%
85B Transformadores	0,35%	85C Baterías, acumuladores, electroimanes	0,08%	0,08%
84E Equipamiento hosteleria y aparatos doméstico	0,34%	40 Caucho y manufacturas	0,14%	0,06%
73D Otras manufacturas de hierro o de acero	0,32%	72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,06%	0,06%
83 Manufacturas metálicas	0,28%	73A Tubos y accesorios	-0,46%	0,06%
89 Navegación marítima o fluvial	0,27%	72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	-0,39%	0,05%
74 Cobre y sus manufacturas	0,27%	71 Joyería y bisutería	0,05%	0,05%
84F Otra maquinaria mecánica	0,21%	44-46 Madera y sus manufacturas	0,04%	0,04%
94-96 Muebles, juguetes, otras	0,20%	1 a 5 Productos del reino animal	0,03%	0,03%
87A Vehículos automóviles	0,20%	85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,01%	0,02%
40 Caucho y manufacturas	0,17%	39 Materias plásticas	0,01%	0,01%
73C Cables, alambre, tornillería, muelles	0,14%	72E Otros de fundición hierro y acero	-0,05%	0,01%
72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	0,14%	16-24 (-22) Productos alimenticios	-0,03%	0,01%
90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,13%	90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,10%	0,01%
84A Calderas y turbinas	0,13%	15 Grasas y aceites	0,00%	0,00%
68-70 Piedra, cementos y vidrio	0,12%	6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	0,00%
75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,11%	25-27 Productos minerales	-0,30%	0,00%
47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,10%	82 Herramientas y útiles	-0,72%	0,00%
85C Baterías, acumuladores, electroimanes	0,10%	28-38 Productos químicos	-0,02%	0,00%
76 Aluminio y manufacturas	0,08%	41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	-0,03%	-0,01%
72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,07%	83 Manufacturas metálicas	-0,46%	-0,01%
44-46 Madera y sus manufacturas	0,06%	87C Partes y accesorios	0,04%	-0,01%
72A Productos planos acero común	0,06%	99 No clasificados	-0,06%	-0,01%
71 Joyería y bisutería	0,05%	84F Otra maquinaria mecánica	-0,04%	-0,01%
1 a 5 Productos del reino animal	0,05%	75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,09%	-0,02%
97 XXI Objetos de arte	0,05%	85D Alumbrado	0,01%	-0,02%
87D Otros del capitulo de vehículos automoviles	0,05%	76 Aluminio y manufacturas	0,05%	-0,03%
85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,04%	84B Motores	-0,06%	-0,03%
84B Motores	0,03%	47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	-0,02%	-0,04%
16-24 (-22) Productos alimenticios	0,03%	87D Otros del capitulo de vehículos automoviles	-0,06%	-0,05%
28-38 Productos químicos	0,02%	73C Cables, alambre, tornillería, muelles	0,08%	-0,05%
39 Materias plásticas	0,02%	68-70 Piedra, cementos y vidrio	-0,05%	-0,08%
25-27 Productos minerales	0,01%	94-96 Muebles, juguetes, otras	0,02%	-0,11%
72E Otros de fundición hierro y acero	0,01%	84A Calderas y turbinas	0,10%	-0,11%
85D Alumbrado	0,01%	87B Vehículos para transporte mercancías	0,00%	-0,12%
15 Grasas y aceites	0,00%	72A Productos planos acero común	-0,08%	-0,13%
41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,00%	84D Grúas y aparatos elevacion	0,48%	-0,41%
6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	97 XXI Objetos de arte	0,03%	-0,44%
99 No clasificados	0,00%	72B Barras y perfiles acero común	-0,46%	-2,17%
87B Vehículos para transporte mercancías	0,00%	86 Vehículos de vías férreas	11,46%	-8,46%

Fuente: Elaboración propia con datos Eustat y UN Comtrade

Ikuspegi bisualago bat emate aldera, grafiko honetan laburbilduta dago Euskadik Mexikon duen posizionamendua sektoreka, interpretazio honen arabera:

- **Indartsuak:** Sektore hauetan asko handitu dira Mexikoko inportazioak azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere handitu egin da.
- **Helduak:** Inportazioak ez dira hazi, baina Euskadiren kuota bai.
- **Potentzialak:** Sektore hauetan asko handitu dira inportazioak azken 5 urteetan, baina Euskadiko kuota ez da handitu.
- **Interes gutxikoak:** Sektore hauetan inportazioak ez dira handitu azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere ez.




Segidan, Euskaditik Mexikora bideratutako esportazioen xede diren sektore nagusien analisi labur bat egiten da, horrela ulertzeko zein posizionamendu daukan Espainiako lehiakideekin alderatuta.

1.- Makinak eta gailu mekanikoak (84)

Atal honetan sartzten dira **erreaktore nuklearrak, galdarak, makinak, aparatu eta gailu mekanikoak, eta makina edo gailu horien zatiak**, 84. artikuluan jasotako salbuespenekin eta 85. kapituluari aitapatutako zehaztasunekin.

12. grafikoa: Espainiaren eta Mexikoren arteko Taric 84 esportazioak guztira (2019)

■ Katalunia ■ Valentiako erkidegoa ■ Euskadi ■ Madril ■ Nafarroa ■ Gainerako autonomi erkidegoak



19. taula: Espainiatik Mexikora esportatutako makina eta gailu mekanikoak (84) (2018-19). Banakapena autonomi erkidegoka balore absolututan

	2018	2019	Δ18/19
Esportatutakoa guztira	778.161,88	810.064,04	4,1
Katalunia	181.670,82	272.221,85	49,84
Valentiako Erkidegoa	136.413,56	141.853,73	3,99
Euskadi	184.201,84	140.128,10	-23,93
Madrileko Erkidegoa	85.181,43	73.007,47	-14,29
Nafarroako Foru Erkidegoa	43.286,99	51.086,09	18,02

Goiko grafikoan eta taulan ikusten da Espainiatik Mexikorako esportazioak % 4,1 hazi direla sektore zehatz honetan, baina hazkunde hori ez da **proporzionala** izan **autonomi erkidego guztietan**. **Katalunia dago lehen tokian**, ia bikoiztu egin dituelarik hurrengo esportatzaile handienaren (Valentiako Erkidegoa) zifrak, eta, gainera, esportatutako kopuruak **ia % 50eko hazkundera** izan du. Bestalde, **Valentiako Erkidegoaren esportazioen hazkundera askoz apalagoa** izan da (% 4), baina nahikoa **2019an Euskadi gaintitzeko**.

EAERI dagokionez, zifrak kezagarriak dira. Egia da oraindik ere sektore honetako esportatzaile nagusien artean dagoela, baina esportazioak % 24 inguru murriztu dira, eta hori kontuan hartu behar da, guztizko esportazioak eta beste autonomi erkidego batzuenak ere hazi egin direlako. Argi dago euskal enpresen **Espainiako lehiakide handienak Katalunian eta Valentiako Erkidegoan daudela**, eta **sektoreak potentzial handia duela**.


2.- Automobilak, traktoreak (87)



Sektore honetan sartzen dira **autoak, traktoreak, belozipedoak eta lurreko gainerako ibilgailuak, bai eta horien zati eta osagarriak**, eta kanpoan geratzen dira soilik errei gainean zirkulatzeko pentsatutako ibilgailuak.

13. grafikoa: Espainiaren eta Mexikoren arteko Taric 87 esportazioak guztira (2019)

■ Katalunia ■ Euskadi ■ Gaztela eta Leon ■ Nafarroa ■ Valentziako erkidegoa ■ Gainerako autonomi erkidegoak



20. taula: Espainiatik Mexikora esportatutako makina eta gailu mekanikoak (87) (2018-19). Banakapena autonomi erkidegoka balore absolututan

	2018	2019	Δ18/19
Esportatutakoa guztira	512.257,90	429.849,02	-16,09
Katalunia	281.904,60	255.628,72	-9,32
Euskadi	102.011,63	74.164,38	-27,3
Gaztela eta Leon	22.886,05	27.660,19	20,86
Nafarroako Foru Erkidegoa	18.806,80	25.626,82	36,26
Valentziako Erkidegoa	59.949,02	24.225,16	-59,59

Automozio sektorea pairatzen ari den krisia gorabehera, **2019an, Taric 87** ataleko produktuak **hirugarren postuan zeuden Mexikok gehien inportatutako produktuen artean**. Ekitaldi ekonomiko horretan inportazioek % 16,66 egin zuten gora (Taric 87arekin alderatuta, ikus 12. taula), eta **Espainiatik Mexikorako esportazioen jaitsierak ere antzeko portzentajea erregistratu zuen (% -16,09)**.

Hala, Espainiako esportazioei erreparatuz gero, merkatu kuotaren % 60 Kataluniako enpresena da, eta bigarren zati handiena Euskadiko enpresen esku dago, merkatu kuotaren % 17rekin. Halere, sektoreak beherakada handia izan du bi komunitateetan (Euskadin askoz handiagoa): Kataluniak % 9 gutxiago esportatu du, baina jaitsiera hori guztizko esportazioek jasandakoa baino txikiagoa izan da; aldiz, **Euskadik ia bikoiztu egin du guztizko esportazioen % 16ko beherakada, % 27,3 jaitsi baita**.

Euskadiko egoerari dagokiolarik, aipagarria da Mexikorako esportazioak % 27,3 murriztu direla aurreko ekitaldi ekonomikoarekin alderatuta, eta kontuan hartzen bada Mexikoren inportazioak (Taric 87 atalarekiko) % 16,66 hazi direla, esan liteke **aukera-galera % 27,3** (lehen asetzen zen merkatua) + % 16,66-koa (2019an asetzeko gelditu den merkatua) izan dela, hau da, **% 43,96koa** (eta hori guztia, *ceteris paribus* egoeran, non hazkunde globala hornitzaileekiko hazkunde proportzionalaren arabera banakatuko bailitzateke).

Azkenik, eta beherakadak orokortua dirudien arren, Nafarroa edo Gaztela Leon bezalako erkidegoek ugaritu egin dituzte sektore honetako esportazioak.



Beraz, sektorea krisian murgilduta dagoen arren, azken ekitaldietako zifrak azterturik esan liteke **merkatu potentzial bat dela**, non **euskal enpresen Espainiako lehiakide handienak Kataluniako enpresak baitira**. Plano globalean, euskal enpresen **lehiakide zuzen asko atzerrian daude**, Espainiako enpresek ez dutelako osatu ase gabe dagoen merkatu-kuota (Nafarroak eta Gaztela eta Leonek izan ezik, eta zenbateko horiek ez dira kontuan hartzeko modukoak Mexikoko inportazioko zifra globalekin alderatuz gero).


Hala ere, ase gabeko kuota horri dagokionez, ezin da kategorikoki baieztatu Euskadikoak ez diren enpresek ase dutenik, **badaudelako inportazio eta esportazio fluxuarekin zerikusirik ez duten arrazoiak**, eta herrialdeko produkzio-sisteman eragina dutenak, esaterako, multilokalizazioa. Hau da, duela urte batzuk arte joera nagusia zen behar ziren produktuak jatorriko herrialdetik inportatzea, hots, enpresa matrizea edo produkzio-lantegi nagusia zegoen herrialdetik. **Une honetan, berriz, kasuan kasuko herrialdean ezartzen diren enpresek industria osagarri bat garatzen dute, eta horrela lortzen da produktua nazionalizatzea**. Horregatik, ezin da esan euskal produktua berez ez denik lehen bezain lehiakorra, izan ere, inportazioen eta esportazioen gorabeherak ezin dira azaldu soilik lehiakortasunaren alderdia bakarrik kontuan hartuta. Badaude beste hainbat faktore, hala nola, **gai geopolitikoak, barneko balio-kateko industria lokalen garapena eta borroka komertzialak**, hau da, oro har globalizazioak eragindako ondorioak.

3.- Makina, gailu eta material elektrikoak, eta haien zatiak (85).

Atal honek bere baitan hartzen ditu **makina, gailu eta material elektrikoak eta haien zatiak**; soinua grabatu edo erreproduzitzeko gailuak, irudia eta soinua grabatu edo telebistan erreproduzitzeko gailuak, eta gailu horien zatiak eta osagarriak.

Taula honetan ikus daitekeen bezala, 2019an **Espainiatik esportatutako guztizkoa** % 25 inguru murriztu zen sektore zehatz honetan, aurreko ekitaldi ekonomikoarekin alderatuta.

14. grafikoa: Espainiaren eta Mexikoren arteko Taric 85 esportazioak guztira (2019)



21. taula: Espainiatik Mexikora esportatutako makina eta gailu mekanikoak (85) (2018-19). Banakapena autonomi erkidegoa balore absolututan

	2018	2019	Δ18/19
Esportatutakoa guztira	522.904,23	393.287,92	-24,79
Nafarroa	104.147,02	88.579,87	-14,95
Katalunia	92.922,97	72.213,41	-22,29
Euskadi	57.891,43	67.806,22	17,13
Valentziako Erkidegoa	74.908,35	52.245,02	-30,25



Madrid	42.455,66	46.848,68	10,35
Aragoi	17.394,56	14.033,8	-19,32


Mexikoren sektore honetako inportazioak % 1,27 murriztu ziren, eta Espainiako esportatzaile garrantzitsuenek beherakada handiak izan zituzten. Aldiz, **Euskadiren** sektore honetako **esportazioak % 17 baino gehiago hazi ziren**, Valentziako Erkidegoaren aurretik kokatzeraino, eta gehien esportatzen duen hirugarren autonomi erkidegoa da orain. Halere, zifra absolutuei erreparatuz gero, argi ikusten da Nafarroa eta Katalunia Euskadiren aurretik daudela, **baina Euskadi ere igotzen ari dela pixkanaka**. Merkatu indartsua da.

6.3. Aldebiko inbertsioak

Mexiko da Euskaditik Latinoamerikarako **esportazioen** jomuga nagusia. Euskal enpresek atzerriko inbertsio zuzen ugari egin dituzte Mexikon, neurri handi batean, AEBetako eta Latinoamerikako gainerako merkatuetan sartzeko bide bat delako, eta baita ere herrialdeak aukera onak eskaintzen dituelako inbertsio horiek egiteko.

Grafiko honetan ageri da euskal enpresek Mexikon barrena dituzten ezarpen-motak: lantegi produktiboak, bulego komertzialak eta zerbitzu bulegoak (azken horiek nagusiki zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresenak dira); ezarpen horiek ez dira elkarrekiko baztertzailak:

15. grafikoa: Euskadiren eta Mexikoren arteko aldebiko inbertsioak



Iturria: CIVEX, Euskadiko Industriaren eta Esportatzaileen Katalogoa. <http://www.industria.ejgv.euskadi.net> Azken kontsulta: 2019/05/8) eta Eusko Jaurlaritzak Mexikon duen Ordezkaritzako datu-basea.

Aurreko grafikoan ikusten da Mexikon ezarpenak dituzten euskal enpresen **% 43k lantegi produktiboak** dituztela. Bulegoei dagokienez, aipagarria da gehienak **zerbitzuen sektoreko merkataritza-bulegoak** direla eta Mexikon ezarritako enpresen **% 30** direla. Bestalde, **% 27 ordezkaritza komertzialak** dira. Hala ere, zenbait euskal enpresak, Mexikon kokatuta egon ez arren, badituzte kanpo-ordezkarri komertzialak edo banatzaileak, hau da, enpresa horien produktua Mexikon merkaturatzen da askotariko bitartekarien bidez (agenteak, banatzaileak edo enpresaz kanpoko ordezkarriak).



7. SEKTORE NAGUSIAK

7.1. Ekarpena BPGari

Munduko Bankuak emandako datuen arabera, hauxe da Mexikoko BPGaren sektorekako banaketa 2018an:

22. taula: Mexikoko BPGa sektore ekonomikoka banakatuta

Mexikoko BPGa sektore ekonomikoka banakatuta (2018) (balio absolutuak milioi USDetan)	
Agriculture, forestry, and fishing, value added (current LCU)	795.383
Manufacturing, value added (current LCU)	4.069.284
Industry (including construction), value added (current LCU)	7.268.242
Services, value added (current LCU)	14.127.538

Iturria: Munduko Bankua, World Development Indicators (azken eguneratzea: 2010/05/28):
<https://databank.worldbank.org/source/world-development-indicators#>

Oharra: 2019ko ekitaldi ekonomikoari buruzko datuak ez daude eskuragarri oraindik.

7.2. Negozio-aukerak

Kontuan izanik gorago aipatutako testuingurua, esan liteke badaudela “**sektore giltzarriak**” eta “**potentzial handiko sektoreak**”, eta kontuan hartu behar direla Mexikon jarduera zehatzak abiarazteko orduan. Gehienbat sektore liberalizatuak dira, eta errendimendu positiboak sor ditzakete:


Sektore ekonomiko giltzarriak: Automozioko zatiak, makineria eta ekipoak, sektore kimikoa, finantza zerbitzuak, aseguruak eta fidantzak.

Potentzial ekonomiko handiko sektoreak: Automozio sektoreko salmenta ondorengo zerbitzua (konponketa, mantenimendua, eta osagarrien salmenta), osagai elektronikoak, banaketa-kateak, energia berriztagarriak, elikagaiak, edariak eta tabakoa, zerbitzu profesional tekniko espezializatu eta pertsonalak. Bankuen sektorea ere oso azkar ari da hazten, eta aukera bat izan daiteke inbertitzaileentzat. Gobernuak jakinarazi du herrialdeko azpiegiturak modernizatu nahi dituela, besteak beste, ospitaleak eta garraioak, eta AIZ gehiago erakarri nahi du horretarako. Era berean, egungo gobernuak eginiko murrizketak gorabehera, azpiegituren sektoreko muntadun proiektu handiek aurrera jarraitzen dute, esaterako Tren Mayak, zeinak proiektuko zati desberdinak lizitatzen jarraitzen baitu.

Oharra.- Lehenago aipatu bezala, zenbait sektoretan pribatizazio programak abiarazi dira, sektoreak berregituratzeko eta ekonomikoki bideragarriago eta kaudimentsuago egiteko. Sektore horiek oso interesgarriak izan daitezke. Era berean, lizitazio, proiektu eta erosketa publikoak ere kontuan hartzekoak dira. Nolanahi ere, aipagarria da, AMLO gobernura iritsi denetik, ziurgabetasuna sortu dela horien inguruan. Aurreko gobernuak aurreikusi zituen proiektu asko bertan behera gelditu dira edo aldatu egin dira (adibidez: **Compranet:** Gobernuaren erosketak; **Tenders Info:** Lizitazioak Mexikon; **DgMarket Tenders:** Lizitazioak mundu osoan).



Espainiak Mexikon dauzkan negozio-aukerei dagokienez (produktu familiaka sailkatuta), ondorioztatzen da hauek direla potentzial handiena dutenak: ibilgailu motordunak, ibilgailuen zati eta osagarriak, eta energia eolikorako multzo elektrogenoak. Egungo esportazioen eta esportazio potentzialen arteko alderik handiena ibilgailu motordunen sektorean dago; horrek esan nahi du 484.4 milioi USD gehiagoko esportazioak egin daitezkeela.





8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

8.1. Nazioarteko kidesunak

Kanpo-merkataritza da Mexikoko ekonomiaren oinarria, bere Barne Produktu Gordinaren % 80,4raino iritsi zelarik 2018an. Gorago aipatu bezala, Mexikoko sistema ekonomikoa eta moneta sistema estuki lotuta daude Estatu Batuek arlo horietan jarraitzen dituen politikekin. Era berean, Estatu Batuak dira Mexikoren bazkide ekonomiko eta komertzial garrantzitsuenak.

Hala ere, eta AEBekiko menpekotasuna handia den arren, **Mexiko Ipar Amerikara, Erdialdeko Amerikara eta Latinoamerikara bideratua dagoen trantsizio-plataforma bat da**, bai bere posizionamendu geografikoagatik, eta baita ere oso modu erosoan integratu delako mundu mailako ordena ekonomikoan. Hain zuzen, atzerriko enpresa askok eta askok erabaki dute Mexikon ezartzea euren produktuak nazionalizatzeko eta, hartara, Mexikok sinatu dituen itun eta akordio komertzialen bidez, gainerako sinatzaileengana iristeko.

Zentzu horretan, Mexikok **Merkataritza Libreko 13 Itun** dauzka 50 herrialderekin (TLC), **Inbertsioen Elkarrekiko Sustapen eta Babeserako 32 Akordio (APPRI)** 33 herrialderekin, eta **Irismen mugatuko 9 akordio** (Konplementazio Ekonomikoko Akordioak eta Irismen Partzialeko Akordioak) Latinoamerikako Integrazio Elkartearen (ALADI) markoan. Hala, akordio horiek gero eta garrantzi handiagoa dute Mexikoren politika komertzialean. TLCAN, CAFTA-DR eta Europar Batasunarekin daukan elkartze akordioaz gain, Mexikok **merkataritza libreko akordioak ditu Txile, Kolonbia, AELC, Israel, Japonia, Panama, Peru eta Uruguarekin. Halaber, Mexiko Pazifikoko Aliantzako kide da Txile, Kolonbia eta Perurekin batera.**

Gainera, aktiboki parte hartzen du organismo eta foro multilateraletan eta eskualde mailakoetan, esaterako, Merkataritzaren Munduko Elkartean (MME), Asia eta Pazifikoko Lankidetzaren Ekonomikoko Mekanismoan (APLEM), Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundean (ELGA) eta ALADIn.

Gaur egun, Mexikok **aldebiko 31 akordio** dauzka, Kanpo-merkataritzari buruzko Informazio Sistemaren (SICE) web orri honetan kontsultatu daitezkeenak: http://www.sice.oas.org/ctyindex/MEX/MEXBITs_s.asp.

8.2. Merkataritza-akordioak

Taula honetan bilduta daude Mexikoren merkataritza-akordio garrantzitsuenak:

23. taula: Mexikoren Akordio Komertzial garrantzitsuenak

MEXIKOREN MERKATARITZA-AKORDIO GARRANTZITSUENAK		
Akordio mota	Akordioa / sinatzaileak	Indarrean sartu zeneko data
AKORDIO MULTILATERALAK	MME	1995eko urtarrilak 1 (GATT 1947ko sinatzailea 1986ko abuztuaren 24tik)
MERKATARITZA LIBREKO AKORDIOAK	Pazifikoko aliantza	2016ko maiatzak 1
	Erdialdeko Amerika (Costa Rica, Salvador, Guatemala, Honduras eta Nikaragua)	Indarrean sartzeko data desberdina da herrialdearen arabera (2012/09/1 eta 2013/07/1 artean)
	Peru (ACE 41)	2012ko otsailak 1
	Bolivia (ACE 66)	2010eko ekainak 7
	Japonia	2005eko apirilak 1
Panama	2015eko uztailak 1	



MEXIKOREN MERKATARITZA-AKORDIO GARRANTZITSUENAK		
Akordio mota	Akordia / sinatzaileak	Indarrean sartu zeneko data
	Urugui (ACE 60)	2004ko uztailak 15
	Merkataritza Libreko Europako Elkartea (MLEE)	2001eko uztailak 1
	Israel	2001eko uztailak 1
	Txile (ACE 41)	1999ko abuztuak 1
	Europar Batasuna (EB)	2000ko urriak 1
	Kolonia	1995eko urtarrilak 1
	TLCAN (Kanada - Estatu Batuak - Mexiko)	1994ko urtarrilak 1
AKORDIO MARKOAK	MERCOSUR (ACE 54) – Akordio markoa	2006ko urtarrilak 5
LEHENTASUNAK	Argentina (ACE 6)	2007ko urtarrilak 1
	MERCOSUR (ACE 55) – Automozio sektoreari buruzko akordioa	2003ko urtarrilak 1
	Brasil (AAP.CE 53)	2003ko maiatzak 2
	Paraguai (AAP.R 38)	1994ko uztailak 1
	Ekuador (AAP 29)	1987ko abuztuak 6

24. taula: Sinatuta baina oraindik indarrean ez dauden merkataritza-akordioak

SINATUTA BAINA ORAINDIK INDARREAN EZ DAUDEN MERKATARITZA-AKORDIOAK	Akordia / sinatzaileak	Sinatu zeneko data
	T-MEC (Kanada-Estatu Batuak-Mexiko)	2018ko azaroak 30
	CPTPP Elkarrekin Transpazifikorako Akordio Zabal eta Progresista	2018ko martxoak 8

Euskadiri dagokionez, azpimarratzekoa da hainbat akordio dauzkala sinatuta Mexikoko estatu eta udalerrri desberdinekin, duela hainbat urtetatik dazkagun alde biko harremanak bultzatzeko eta zenbait sektoretan sakondu eta sinergiak aprobetxatzeko. Hona hemen akordio horietako batzuk: **Eusko Jaurlaritza eta Querétaroko Gobernuak sinatutako Eten Memoranduma (2014)**, **Mexikoko Estatuaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arteko Akordioa (2015)**, eta **Euskadiko Eraikuntza Klusterraren eta Colima Estatuako Zientzia eta Teknologia Kontseiluaren arteko akordioa (2019)**.



9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

Lehenago aipatu dugun bezala, gaur egungo testuinguru politikoaren ondorioz, Mexikoren herrialde-arriskua “B” multzokoa da Coface-k¹⁶ erabiltzen duen neurketa sistemaren arabera, hau da, arrisku esanguratsua. Baina negoziotarako giroa “A4” mailan kokatzen da, beraz, onargarria da. Taula honetan eskema bat osatu da, zuzeneko eta zeharkako eraginak dituzten faktoreak labor-labor adierazteko, kontuan hartzekoak baitira Mexikon inbertsio bat egiteko orduan:

25. taula: Mexikoko arrisku eta aukeren analisia

Faktore positiboak (+)	Faktore negatiboak (-)	Gobernuak hartutako neurriak
Ongi integratuta dago mundu mailako ordena ekonomikoan: T-MEC, ELGA, G20, Pazifikoko Aliantza...	AEBekiko menpekotasun handia: akordioetako edozein aldaketak eragina du. Ekonomia petrolioaren prezioaren gorabeheren eraginpean dago.	Berriki onartu da T-MEC.
Posizio geografiko estrategikoa: Ipar Amerikan zko eta Latinoamerikan zko transizio-plataforma bat da.	Ustelkeria eta kriminalitate tasa altuak.	ProMéxico: atzerriko inbertsioa Mexikora erakartzen duen erakunde federala.
Baliabide natural oparoak: askotariko jarduerak garatzen dira prezio lehiakorretan.	Oraindik konpontzeko dauden arazo estrukturalak: desberdintasun ekonomiko eta sozialak. Hezkuntza sistema prekarioa eta ez-eraginkorra.	Inbertsiorako laguntzak: Eremu pribilegiatuak (adibidez Gune Ekonomiko Espezializatuak), Zergarik gabeko eremuak (merkataritza libreko bi eremu daude San Luís Potosí estatuan), Organismo finantzatzaileak (Garapenerako Bankua, Banku Nazional Finantzarioa eta Bancomex).
Lan-esku lehiakorra	Zenbait sektore erreserbatuta daude estatuarentzat eta mexikarrentzat. ¹⁷	Aldebiko 30 akordio elkarrekiko inbertsioak sustatzeko eta babesteko.
Munduko zortzigarren jomuga turistikoa	Narkotrafikoak dakarren indarkeria benetako arriskua da , bai maila sozialean eta bai ekonomikoan, eta eragina du eremu askotan, batik bat, Estatu Batuekiko mugatik hurbil daudenetan. Intzidentzia handia du sektore jakin batzuetan.	Inbertsioak Bermatzeko Agentzia Multilateraleko (MIGA) kide da.
Egonkortasun politikoa, Latinoamerikako beste herrialde batzuekin alderatuta	Gobernu aldaketak ziurgabetasuna eragin du zenbait sektoretan. Obra zibil eta publiko asko geldituta daude.	Pribatizazio programak sektore garrantzitsuetan: higiezinak, aireportuak eta zenbait birfindegi.
Inbertitzeko aukera handiak sektore giltzarrietan eta potentzial handiko sektoreetan.	Zenbait arazo egon dira higiezin sektorean.	Apustu irmoa egin da PEMEX petrolio enpresa nazionalaren alde, energia berriztagarriak sustatzen zituzten beste politika batzuen kaltetan.

¹⁶ Coface-ren munduko sarean eta Coface-k arriskuen kudeaketari, enpresei buruzko ikerketari eta diru-berreskuratzeen kudeaketari buruz duen esperientzian oinarritutako ebaluazioa. Analisi horrek zazpi mailako sailkapen bat erabiltzen du, arrisku txikienetik handienara doana: A1, A2, A3, A4, B, C eta D. Hala, batetik, aztertzen dira ingurune makroekonomikoa eta politikaren egoeraren jarraipena, banka eta gure negozioaren egunerokotasunean integratutako finantza arloko arriskuak. Bestetik, analizatzen dira seinale makroekonomikoak (ordaindu gabeko enregistrazioak), aukera ematen dutenak ekonomiei eta sektore afektatuei buruzko diagnostikoak, eta aztertutako herrialde bakoitzari buruzko aurreikuspen eta ebaluazioak fintzeko.

¹⁷ Sektore monopolistikoak: gas-petrolio likidotuaren banaketa eta garraioa. Argindarraren sorkuntza, banaketa eta merkaturatzea. Informazio gehiagorako, kontsultatu Atzerriko Inbertsioaren Legea: http://www.diputados.gob.mx/LeyesBiblio/pdf/44_150618.pdf



10. ONDORIOAK

Segidan, laburpen bat aurkezten da, non azpimarratzen baitira txosten honetan landutako atal bakoitzetik ateratako ideia eta ondorio garrantzitsuenak:

LEHENA.- Mexikon **testuinguru sozio-politiko berri bat** nagusitu da, Movimiento Regeneración Nacional alderdiko (joera “sozialistak” dituen) Andrés Manuel López Obrador buru duen gehiengo absolutudun gobernu berria eratu ondoren. **Gobernu aldaketa horrek berekin ekarri ditu** enpresen eta atzerriko inbertitzaileen **mesfidantza eta ziurgabetasuna**, are gehiago gobernu berriak Covid-19aren krisiaren inguruan hartutako hasierako jarreraren ostean, ez baitzuen neurririk hartu iruditu zitzaizolako egoera ez zela hain larria.

Hala ere, **nola inbertsioaren alderako politika abantailatsuak abiarazi diren eta pesoa debalatu egin den, espero da bi faktore horiek herrialdearen lehiakortasuna hobetuko dutela**, betiere horrekin batera segurtasun juridikoa handitzen bada merkataritza eta finantza arloetan. Era berean, Covid-19ak azkartu egin du Mexikok lehenagotik arrastaka zekarren krisi ekonomikoa. Ondorioz, **gobernuak politika publikoak abiarazi beharko ditu sektore pribatuarekiko kohesioa lortzeko** eta, horrela, epe ertaineko suspertze ekonomikoranzko bidea hartzeko. Hala, gobernuaren gobernagarritasun-indize handiak segurtasun juridikoa handitu behar luke eta erraztasunak eman behar lituzke legeak al bait azkarren onartzeko (azken alderdi hori bereziki garrantzitsua da pandemiaren ondorioak arinduko dituen epe laburreko ekintza-plan bat sortzeko).

Testuinguru sozialari dagokionez, Mexikok **76 puntu ditu Giza Garapenaren Indizean** (GGI) eta 189. postuan dago mundu mailako rankingean. Halere, GINI indizeko **desberdintasun-tasa handia da** (0,434), biztanleriaren % 15etik gora bizi baita pobrezia gorrian. Hala, pobreziaaren aurkako borroka lehenagotik dagoen bat da AMLorentzat, eta dagoeneko onartu du lege bat Lanbide arteko Gutxieneko Soldata % 20 igotzeko.

BIGARRENA.- Mexiko **46. postuan dago Munduko Ekonomi Foroaren Lehiakortasun Rankingean**¹⁸ (140 Herrialdeko zerrenda) eta laugarren postutik **bigarrenera igo da Latinoamerikan**, soilik Txileren atzetik eta Costa Rica nahiz Panamaren aurretik. India eta Brasilen aurretik dago. WEF erakundeak eginiko analisiaren arabera, Mexikoren indargune nagusia bere merkatuaren tamaina da, izan ere, **munduko ekonomia handienetakoa da ekoizpenari, merkataritzari eta biztanleriari dagokienez, eta egonkortasun makroekonomiko handia dauka.**

Hala ere, eta nazioarteko merkatuan posizionamendu ona izan arren, INEGI eta Munduko Bankuak berriki eginiko kalkuluen arabera, Mexikoko ekonomiak **% 0,10eko urteko desazkundera izan zuen 2019an**, 2018ko % 2,14ko hazkunderaren aldean. Azterlan horiek aurreikusten zuten 2020an suspertze apal bat gertatuko zela, baina **pandemiaren ondorio negatiboek** guztiz aldatu dute iragarpen hori eta, testuinguru berri honetan, hainbat iturrik diote **BPGa -0,7 eta -7,6 puntu inguru murriztuko dela**. Aldea izugarria da, bai balio erlatiboetan eta baita ere absolutuetan. Iturri guzti-guztiak aurreikusten dute murrizketa bat, batzuek handiagoa eta beste batzuek txikiagoa. Adibidez, NDFk dio jaitsiera 6,6 puntukoa izango dela.

Nolanahi ere, bai aipatutako azterlanak eta bai INEGI, Mexikoko Bankuak eta Deloitte aholkularitza pribatuak egindako azterlan batek aurreikusi dute **ekonomiak suspertzen jarraituko duela urtearen laugarren hiruhilekoan eta 2021eko lehen hiruhilekoan**. Hauek dira fenomeno horren atzean dauden arrazoi nagusiak: (i) **Mexikok** posizionamendu ona lortu du **T-MEC berretsi ondoren**; (ii) **baliteke Txinako produkzio-kate batzuk Mexikora aldatzea** datozen urteetan; (iii)

¹⁸ Munduko Ekonomia Foroak (ingelesezko siglak: WEF) argitaratu atera zuen 2018ko Lehiakortasun Globalaren Txostena, Lehiakortasun Indize Global berria jasotzen duena (ICG 4.0). Indize global berri horrek herrialde baten produktibitatea zehazten duten faktoreak ebaluatzen ditu, esparrutat hartuta 4. iraultza industrial (arreta berezia jarri kapital sozialari, etorkizunerako prestakuntzari, negozio disruptiboari, zerbitzuen merkataritzaren irekierari, zorrari, e.a.).



kontsumo pribatua suspertu egingo da; (iv) atalkako diru-sarrerak handitu egingo dira eta (v) hirugarren sektoreko jarduerak apur bat haziko dira.

HIRUGARRENA.- Kanpo-merkataritzak garrantzi handia hartu du maila makroekonomikoan, **BPGaren % 80,4ra iritsi delarik 2018an**. Mexikoren **balantza komertziala estrukturaliki negatiboa** da, eta joera hori areagotu egin da Estatu Batuekiko tentsio komertzialen eta petrolioaren prezioak mundu mailan izan dituen gorabeheren ondorioz (2019an izan ezik). Mexikoren **harreman komertzialek lotura estua dute** bere bazkide nagusiak -hots, **Estatu Batuek-** dituen harremanekin. Mexikoko ekonomiak lotura estua du jarduera estatubatuarrarekin, eta harekiko menpekotasun handia du moneta politikari dagokionez. Hala, AEBekiko jarduerak Mexikoko esportazio guztien hiru laurdenak baino gehiago ordezkatzan ditu (2018an % 76,5, MMEren arabera).

Ekoi zen komuna onuragarria da bai Mexikorentzat eta bai Estatu Batuentzat; prozesu horren bidez, ondasun bat **Estatu Batuetan diseinatzen da**, Mexikon mihizatzen da eta Estatu Batuetara itzultzen da ekoi zenaren azken urratsak emateko. **Sistema horretan, automozio sektoreak garrantzi handia hartzen du**. Hala ere, T-MEC indarrean sartu denetik, 232.a bezalako arauak indartu egingo dute Mexiko eta Kanadaren posizioa. Arau horrek Mexiko eta Kanada babesten ditu, baldin eta, adibidez, **Estatu Batuek erabakitzen badute muga-zergak jarri nahi dizkiotela mundu osoko automozio industriari edo aldatzen badute produktuaren jatorriari buruzko araua**.

Transakzioen xede diren produktu nagusiei erreparatuz gero, ikus liteke lehentasunak bertsuak direla bai esportazioetan eta bai inportazioetan. Hau da, **ibilgailuak eta makineria** –beren modalitate desberdinetan- eta euren deribatuek dira atzerrian gehien salerosi diren produktuak. **Mineralak eta erregaiak** ere garrantzitsuak dira balantza komertzialaren egituraren barruan.

LAUGARRENA.- Mexiko da **Euskadik Latinoamerikara egiten dituen esportazioen jomuga nagusia**. Era berean, euskal enpresek atzerriko inbertsio zuzen ugari egin dituzte Mexikon, neurri handi batean, AEBetako eta Latinoamerikako gainerako merkatuetan sartzeko bide bat delako, eta baita ere herrialdeak aukera onak ematen dituelako inbertsio horiek egiteko.

Aipatzekoa da EAEk Mexikon duen indarra **motor eta sorgailu elektriko**en sektorean. Badaude hainbat sektore **potentzial handikoen eta indartsuen arteko muga** kokatuta daudenak, hala nola, **automozioa, makina-erreminta, ostalaritzako ekipamendua, kableak, motor elektrikoak eta igogailuak**. Bestalde, **sektore helduen** artean aipatzekoa da **aireko edo espazioko nabigazioarena**, zeinetan Mexikoren inportazioak murriztu egin diren eta EAEn kuota hazi egin den azken 5 urteetan. Era berean, Euskadik merkatu-kuota garrantzitsua du **burdin, altzairu eta burdinartuen** sektoreetan, eta % 20,78ko hazkundera izan du azken ekitaldi ekonomikoan.

Izan ere, **354 euskal enpresa daude Mexikora esportatzen dutenak**, eta **152k** modalitate desberdinetako **ezarpenak** dituzte (**horietatik 65 produkzio-lantegiak dira**).

BOSGARRENA.- Mexikoko sektore giltzarri gehienak edota potentzial handia dutenak liberalizatuta daude: automozio zatiak, makineria eta ekipoak, sektore kimikoa, finantza zerbitzuak, aseguruak eta fidantzak. Egungo gobernuak jakinarazi du herrialdeko azpiegiturak modernizatu nahi dituela, besteak beste ospitaleak eta garraioak, eta horretarako, AIZ gehiago erakarri nahi duela, aukera bat zabalduz lehenagotik ere tamaina handiko obretan (adibidez Tren Mayan) parte hartzen duten euskal enpresentzat.

Badira hainbat arrazoi sektore horien potentziala bultzatzen dutenak: Mexikoren **kokapen geopolitiko estrategikoa**, **mundu mailako ordena ekonomikoan duen integrazio ona** eta T-MEC **akordio berretsi berria**, inbertitzaileak aurreko itunak (T-CLAN) baino hobeto babesten dituenak. Gainera, AEBekiko muga badaude **eremu pribilegiatuak** direlakoak, **hainbat pizgarri** dituztenak, besteak beste, **zergetan eta araudietan**.

Hala ere, aipatzekoa da badaudela inbertsio zuzenak eta operazio komertzialak eragozten dituzten beste hainbat faktore: **ustelkeria eta narkotrafikoak eragindako indarkeria**, eta azken horrek zenbait sektoretan dituen ondorioak.



Nolanahi ere, pandemiak eragindako krisia eta atzerriko inbertitzaileen artean mesfidantza sor lezaketen beste faktore batzuk gorabehera, egia da **Mexikoren testuinguru orokorra abantailatsua dela enpresak deslokalizatzeko eta balio-kate osagarri bat sortzeko, eta bide horretatik, posizionamendu on bat lortzeko Estatu Batuetara eta Latinoamerikara begira.** Are gehiago zenbait sektore zehatzetan, esaterako **auto zatienean edo gailu elektrikoek salmentan.** Euskal enpresa garrantzitsuenek dagoeneko badute presentzia arlo horietan, eta hori lagungarri da hornitzaileak merkatuan eta balio-kateetan integratzeko.



11. ERREFERENTZIAK

• ORGANISMO ETA ERAKUNDEAK

MUNDUKO BANKUA (2020/05/14): <http://documentos.bancomundial.org/curated/es/home>

MUNDUKO BANKUA, World Development Indicators (azken eguneratzea: 2020/05/28): <https://databank.worldbank.org/source/world-development-indicators#>

Batasuneko Kongresuko Diputatuen Ganbera (2018/06/16): http://www.diputados.gob.mx/LeyesBiblio/pdf/44_150618.pdf

Finantza Publikoen Ikerketa-zentroa (CEFP). 2019ko martxoa; <https://www.cefp.gob.mx/new/index.php>

Central Intelligence Agency (CIA) (azken eguneratzea 2020/04/11): <https://www.cia.gov/es>

CEPAL, "Latinoamerika eta Karibeko proiektzioen Eguneraketa". 2019ko eguneratzea: https://www.cepal.org/sites/default/files/pr/files/tabla_prensa_pib_balancepreliminar2019-esp.pdf

CIVEX: Euskadiko Industria eta Esportatzaileen Katalogoa (2020/06/10): <http://www.industria.ejgv.euskadi.eus>

COMPRANET (2020/06/10): <https://sites.google.com/site/cnetuc/contrataciones>

Biztanleriaren Kontseilu Nazionala (CONAPO) (2020/04/16): <https://www.gob.mx/conapo>

DATA COMEX, Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak: <http://datacomex.comercio.es/CabeceraPersonalizada.aspx>

Foreign Trade Information System (FTIS): http://www.sice.oas.org/agreements_e.asp

Nazioarteko Diru Funtza (NDF), "Munduko Ekonomiaren Aurreikuspenak". Eguneratzea, 2019ko urtarrila: <https://www.imf.org/es/Publications/WEO/Issues/2019/01/11/weo-update-january-2019>

SPRI TALDEA (2019/11/07) "Euskadik eta Nuevo León (Mexiko) estatuak 4.0 industriaren arloko lankidetzara bultzatu dute": <https://www.spri.eus/es/basque-industry-comunicacion/euskadi-y-nuevo-leon-mexico-impulsan-su-colaboracion-en-la-industria-4-0/>

Mexikoko gobernuak: <https://www.gob.mx/zonalibredelafronteranorte>

Espainiako Merkataritzaren Institutua (ICEX). Txostena (2019ko martxoa): "Mexikoko auto zatien merkatua": www.icex.es › estudios-informes › DOC2018790844

Errepublikako Senatuko Ikerketa Legegileen Institutua: <http://bibliodigitalibd.senado.gob.mx/bitstream/handle/123456789/1718/MPYMEM.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Estatistika eta Geografiako Institutu Nazionala (INEGI): <https://www.inegi.org.mx/>

ITC "Export Potential Map": <https://exportpotential.intracen.org/es/products/tree-map?toMarker=j&market=484&fromMarker=w&exporter=w&whatMarker=k>

International Trade Statistic (ITS): <https://www.trademap.org/>

Compagnie Française d'Assurance pour le Commerce Extérieur (COFADE): <https://www.coface.com.mx/>

OECD Interim Economic Outlook projections. 2019ko martxoa; <https://www.oecd.org/economic-outlook/>

Ogasun eta Kreditu Publikoko Idazkaritza (SHCP): <https://www.gob.mx/shcp/documentos/publicaciones-de-la-shcp-en-el-dof?idiom=es>

Ekonomiako Idazkaritza, Mexikoko gobernuak: https://www.gob.mx/se/es/archivo/acciones_y_programas

UN Comtrade International Trade Statistics Database: <https://comtrade.un.org/data/>

UNCTAD: <https://unctad.org/es/Paginas/Home.aspx>

World Economic Forum (WEF): <https://www.weforum.org/>

World Trade Organisation (WTO): <https://www.wto.org/>

• AHOLKULARITZAK ETA ENPRESA PRIBATUAK

Banco Santander: <https://santandertrade.com/es/portal/perfil-pais/35,mexico>

BANXICO (19/02), "Sektore Pribatuko Ekonomiako Espezialisten Aurreikuspenei buruzko Inkesta": <https://www.banxico.org.mx/publicaciones-y-prensa/encuestas-sobre-las-expectativas-de-los-especialis/encuestas-expectativas-del-se.html>

Nuevo León estatuko Automozio Klusterra (CLAUT), Hileroko aldizkariaren editoriala, 2019ko azaro-abenduko alea: <https://indd.adobe.com/view/cd88fdd4-26bb-4cc6-bdcd-a8b568a6097c>



DELOITTE (2019ko abuztua), “Industrien joerak”:
<https://www2.deloitte.com/content/dam/Deloitte/mx/Documents/finance/2019/Tendencias-industrias-D-Econosignal-3T2019.pdf>
DGMARKET (2020/05/20): <https://www.dgmarket.com/tenders/list.do?sub=finance-7>
ERAIKUNE, Eraikuntza Klusterra (2019/09/19): <http://www.eraikune.com/noticias/euskadi-y-mexico-firman-un-convenio-de-colaboracion-en-el-marco-de-la-industria-de-la-construccion/>
TENDERSINFO, “Proiektuak Mexikon” (2020/05/20): <https://www.tendersinfo.com/mexico-projects.php>
Union Bank of Switzerland (UBS): <https://www.ubs.com/global/en/investment-bank/in-focus/covid-19.html?intCampID=HPPROMOTEASER-GLOBAL-IBRESEARCHCOVID19-P2>

- **EGUNKARIAK ETA ALDIZKARIAK**

La Región Internacional (2015/10/28), “Eusko Jaurlaritzak eta Querétaroko gobernuak lankidetzak akordioa sinatu dute”:
<https://www.laregioninternacional.com/articulo/pais-vasco/gobierno-vasco-y-estado-queretaro-firman-acuerdo-cooperacion/20141028181040242994.html>
LÓPEZ GUZMÁN, Fernando Agustín (2019/06/04) “Elkarrizketa Automozio industriarekin 2018-2024”, Automozio Industriaren Mexikoko Elkarte (AMIA). Webgunea: <http://www.amia.com.mx/boletin/dlg20182024.pdf>
RUÍZ MONDRAGÓN, Ariel (2020/04/04) “Auto zatien industria nazionala, sektoreko enpresen alde”, Bancomext Kanpo-merkataritzak: [http://www.revistacomercioexterior.com/articulo.php?id=2](http://www.revistacomercioexterior.com/articulo.php?id=2&t=la-industria-)
<http://www.revistacomercioexterior.com/articulo.php?id=2>

© Agencia Vasca de Internacionalización
Basque Trade and Investment S.A.



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BASQUE GOVERNMENT**